1992ko maiatzak 3 – 1.385 zenbakia – 225 pezeta (BEZ barne) / 13 libera

ARGIA

PANTXOA GARAT

«Nuntzioari baimena ematea, preso politikoa nintzela onartzea da»

HERRI URRATS

Kalbador Ikaŝtegia bigarren mailakoa bihur dadin

BURUHILTZEA

Euskal Herrian pertsona bat hiltzen da egunero bere buruaz beste eginik

MAIATZA DANTZAN

Abangoardiaren atarian

HB-K EZTABAIDA PROZESUA BURUTU BERRI DU

URRATS BERRI: BIHARKO GIZARTEA DEFINITZEKO SAIOA

EGILE ESKUBIDEAK: SORMEN MUNDUKO LANGILEEN BABESA

EUSKARAZ BIZI IKASTOLA HAZI

HERRI URRATS

SENPEREN MAIATZAREN 10EAN

kutxa

gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebasti

Euskitzeri

ASTE honetako ARGIAren 1382. zenbakian agertutako Euskitzeren idatzia irakurri bezain pronto ateratako lau hitz kaleratu nahi ditut.

Ezer baino lehen, Euskitzek berak jakin nahi duena nik ere jakin nahi dudala esan beharra dut.

Hala ere, bertsolari maitatu horren kezkaren ildoari jarraituz, zera jakin nahi dut: Zerk molestatzen dizu gehien, ETAk berak ala ETAren euskararen erabilpena? Zer egin duzu zuk gure telebistak euskararekiko duen jarrera salatzeko? Noiz salatu duzu zure lantokian, «txoko» txiki horretan, euskararen egoera?

Salatu *beharrekoak* noiz salatuko dituzun jakin nahi dut.

Tristea da benetan Euskitzek, gauza baten kontra jotzeko atxakia bezala euskara erabiltzea.

Hainbeste gauza jakin nahi nuke nik...

Soldadu bat
(Donostia)

Xabier Euzkitzeri

NAHIAGO nuke isilik egon izan bazina beste apur batean Xabier. Aitortu behar dizut parada aproposa aukeratu izana, hala ere. Bejondeizula! Ez zidakeen horrenbeste minik emango Bankari buruz, edo Eliza edo komunikabide nagusien euskararekiko jarrerez aritu izan bazina harako zorroztasunaz. Neure isilarekin barkatuko nizukeen hiru-lau aste lehenago oka egin bazenitu ahokadok, baina zuhaitz eroriari egurra eman nahi izan diozulako errezeloak hartu nau.

Inor gutxi ezagutu dizut zu bezain jaioa aditzak konjugatzen, benetan gutxi. Ordea, gaiztoz zabiltzala esan behar dizut oraingoan, eta beste gauza bat ere esan behar dizut, konpainia txarrean zabiltzala, gezurrarekin.

Ñabardura estatistiko zehatzak emateko kapaz ez dut bilatzen neure burua auzi horretan; ez uste ordea zabar-antxa ibiltzeak isilduko nauenik. Otamotxeko samarra ni ere nonbait. Zer duzu zuk maiteen mundu honetan? Bada, huraxe jartzen dizut testigu joandako bi urteetan euskaraz *irentsi* ditudala ETAren agiri ia-ia guztiak, hori barrena. Kontua izan daiteke bakoitzak zein komunikabideri eman ohi dion begia.

Ados, bat nator zurekin, zeharo konforme. Interesgarria litzateke jakitea, besteak beste, ETAri buruzko zenbait datu. Interesgarria litzateke jakitea oraindik kuarteletan «Los 40 principales» entzuten duten ala «Euskadi Gaztea» gurago duten egun. Eta beste anizko. Ilustratu herri honetan jakinmina galtzen ez den artean animo. Baina ez dut ulertzen zergatik egotzi nahi diozun eginkizun hori EHEri, ez dut ulertzen, Xabier. Ibili ibilita zuk zeuk seguruago eskura zenezake EHEri eskatzen diozuna. Erraza daukazu.

Taloari beroan heldu zaleak gara, ongi dakizu. ARGIAn (1382 zkia) zuk botatakoek sutu egin naute, zurea oldar zabalagoaren ale ikusi dut. Hala ere, zure lumak jaulki izanak nau erre, haizealde jardutearen erotikak harrapatu zaituela jabetzeak.

Oraindik sumintzen gara eta, bizi garen seinale. Zure isiltasunaren neurriak beldurrez nauka, ez zintuzket mintza zaitezen xaxatu nahi. Ondotxo dakigu dena libre ez dena, kontuz ibili beharra dago Xabier, zikinak jango gaitu bestela.

J.L. Otamendi
(Azpeitia)

Oharra

OHAR honen bidez, 1992ko apirilaren 12ko datarekin, 1.382 zenbakian, toyotismoari buruzko erreportaian agertutako Antxon Mendizabalen hitzak argitzea nahi genuke.

Antxon Mendizabalek berak esan zigunez, toyotismoak ez du alienazioa erabat baztertzen, aitzitik, sistema honek eragiten duen langileen kualifikazioa da alienazioa, neurri batean, ekiditen duena.

ARGIA

NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

(astekaria eta urtekaria jaso nahi ditut etxean)

IZEN-DEITURAK .....

..... TEL .....

HELBIDEA .....

HERRIALDEA ..... K.P .....

BANKU EDO AURREZKI KUTXA .....

SUKURTSALA .....

KONTUAREN ZENBAKIA .....

ARGIA: Industrialdea, 1 eta 2 pabiloiak. 20160 Lasarte-Oria

HARPIDETZA SARIAK (BEZ barne)

HEGO EUSKAL HERRIA
9.750 pezeta
IPAR EUSKAL HERRIA
640 libera
ESTATU ESPAINIARRA
9.750 pezeta
BESTE ATZERRIAK
12.800 pezeta
AIREZ
20.200 pezeta

NON-ZER

Azaleko argazkia: ANDER GILLENEA

6. Politika kronika. IÑAKI ZUBIONDO.

8. Urrats Berri eztabaida prozesua burutu berria du Herri Batasunak.
HBren etorkizuneko gizartea definitzeko lehen urratsa. GARBIÑE UBEDA.

12. Politika ttanttaka.

14. Nazioarteko kronika. LUKAS MARTINEZ.

16. Muyahidinen garaipenaren ondoren Afganistan libanizazioaren ateetan. XABIER LETONA.

20. Nazioartea ttanttaka.

22. Autobidearen bi tramu amaitu dira dagoeneko, eta beste biak aurrera doaz. Sakana, eztabaidak dirau. OLATZ IRIZAR.

26. Suizidioa, irtenbide bakarra askorentzat. AMAGOIA IBAN.

30. Seaska haz dadin, Senperera. IXABEL ETXEBERRIA.

34. Pantxoa Garat: «Nuntzioari baimena ematea, preso politikoa nintzela onartzea da». MYRIAM GARTZIA, IXABEL ETXEBERRIA.

40. Kultura kronika. J.J. PETRIKORENA.

42. Dantza garaikideko IX jaialdia, laster Gipuzkoan zehar.

Maiatza Dantzan, abangoardia atarian. PATXI SARRIEGI.

45. Egile eta irudi eskubideak: sormen munduko langileen babesa. JOXI GOIKOETXEA.

48. Anje Duhalderen «Bakezaleak» lan berria kalean da jada.

«Nazka eginda nago inguruan hainbeste 'bakezale' ikusita. ALBERTO IRAZU.

50. Munduaren zabaletik kultura. J.M. HERITZ.

52. Kultura ttanttaka.

54. Astegiroa.

66. EKB: Ahaleginak bilduz etorkizuna lantzen. INAZIO MARKO JUANIKORENA.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

POLITIKA: HBk iaz ekin zion berritze prozesuari, instituzioetan parte hartzeari buruzko erabakia berrikusi zuenez eta oraintsu bukatu berria du, Mahai Nazionaleko kide berriak aukeratu ondoren. Lau txostenen inguruan mamitu dute Urrats Berrizeneko prozesua, eta feminismoa, antimilitarismoa, borroka armatua eta sozialismoa izan dira gairik eztabaidatuenak./**8**



SUIZIDIOA: Euskal Herriko biztanleren batek bere burua hiltzen du egunero. Depresioak jota egotegatik, arazo psikopatologikoak izateagatik... arrazoiak anitz izan litezke, baina argi dago gero eta jende gehiagok aukeratzen duela heriotza. Hirikoak zein nekazal mundukoak, 55 urteko adinarekin batez beste, gizonezkoak gehienak, arazo larria bilakatu dira osasun instituzioentzat./**26**



PANTXOA GARAT: Ezpeletako erretorea dugu Pantxoa Garat. Baita errefuxiatuen aldeko Anai Artea elkarteko partaidea ere. Paperik ez zuen errefuxiatu bati aterbea emateagatik espetxean bi hilabete pasatu berriak ditu Pantxoa Garatek. Esperientzia honi buruz, azken aldian egin dituzten atxiloketez eta Elizak euskal gizartean betetzen duen paperaz mintzatu zaigu elizgizon hau./**34**



HERRI URRATS: Datorren maiatzaren 10ean Herri Urratsen edizio berri bat ospatuko da Senperen. Aurtengoan, Xalbador Ikastegia bigarren mailako lizeoa izan dadin bilduko da dirua. Bitartean, Seaskako irakasleak konbenioa sinatu zain daude, eta jasotzen duten laguntza ekonomikoa inoiz baino urriagoa dela diote./**30**



KULTURGINTZA: Aktoreek, argazkilariek eta sormen lanetan diharduten gainerako arloetako langileek elkarteak sortu dituzte euren oinarrizko eskubideak kudeatzeko asmoz. Elkarte hauen bitartez eta Jabego Intelektualaren Legearen arabera, beren egile eta irudi eskubideak errespetatuak izan daitezen lortu nahi dute./**45**

Jabea: Zeruko Argia, S.A.L.

Argia egiten dugu:

Donostian: Eñaut Apaolaza, , Amagoia Iban, Alberto Irazu, Joxi Goikoetxea, Josu Landa, Ritxi Lizartza, Juan Jose Petrikorena, Patxi Sarriegi, Garbiñe Ubeda, Aitziber Yarza.

Bilbon: Joseba Azpeitia, Jose Mari Egaña, Myriam Garcia, Xabier Letona, Ermiñe Madariaga, Sabino Madariaga, Amaia Nabaskues, Jon Olaizola, Xabier Zabaleta.

Iruñean: Iñaki Camino.

Iparraldean: Ixabel Etxeberria.

Gasteizen: Ismael Diaz de Mendivil, Jon Maia, Leire Lopez de Aberasturi, Igone Olarte, Estitxu Ugarte.

Kolaboratzaileak: Mikel Antza, Xabier Alegria, Edorta Arana, Xipri Arbelbide, Karlos Argiñano, Gorka Arrese, Patxi Azpillaga, Mikel Arrieta, Juan Mari Arzak, Mikel Asurmendi, Jean Louis Davant, Enbido, Elhuyar, Xarlo Etxezarreta, Xabier Euzkitze, Luis Fernandez, Fernan Goñi, Andres Gostin, Jimu Iturralde, Juan Jose Lapitz, Xabier Lekuona, Xabier Lezeta, Emilio Lopez Adan, Mattin, Bego Montorio, Imanol Murua, Joxan Oiz, Eva Olaizola, Xabier Oleaga, Bota Punttuba, R. M. Sabaris, Joxemi Saizar, Carlos Santamaria, Jon Sarasua, Tala, Txillardegi, Iñaki Uria, Iñaki Uriarte, Asisko Urmeneta, Pello Zubiria, Joxemi Zumalabe.

Argazkiak: Aitor Bayo.

Diseinu eta montajea: Garbiñe Ubeda, Karlos Beristain.

Infografia: Beñat Azurmendi, Iñaki Martiarena.

Azala: Aitor Bayo, Garbiñe Ubeda.

Publizitatea: Ramuntxo Sagarzazu.

Promozioa: Jose Luis Olaziregi.

Administrazioa: Aitor Aznar.

D.L.: 80-1963.

Commission paritaire: 72562 E.

Helbidea: Industrialdea, 1 eta 2 pabiloiak. 20160 Lasarte-Oria. 114 Postakutxa Bilbo

Tfnoa: (943) 37 15 45, (94) 424 46 63.

Faxa: (943) 36 10 48.

Inprimategia eta Fotomekanika: ANTZA.

Ajuria Eneatik Burgos aldera

UNIBERTSITATERA joan ahal izateko azken azterketa gainditu izan balute bezala dabiltza politikariak. Autobidearen auzia konponduta, datorrenari nola heldu ezin erabakian. Gehiengoa pozarren, hala ere; berria gogo txarrez hartu duen inor aipatzea ez bait litzateke zuzena izango. Dena den, horrelakorik egon badago.

Estudiante ona izatea modan jarri zenez geroztik, 8tik beherako nota lortu duenak muturra okertzen du, gainditu izanak sortutako poza ezkutatzeko.

Barre algara lasaitasun ederrean erakutsi duen bakarrari lotsagabekeria eta harrokeria leporatu diote ikasgelako kideek. Rosa Conde andereinoak berak ere errieta egin die.

EA honez gero nekatuxe zegoen zintzotasunaren izenean gaiztoarena egiten. San Lorenzori esker, betarik badu azken kongresuko erabakiei ekiteko, arazo zaharrak bazter utzita. Baina muturra luze, bada ez bada ere. EUE, lagun fin.

PSOEk notarik bikainena lortu ez izanda ere, ikasgelako kideek listoena dela sinestea lortu du. Galderarik zailena hark asmatu izan balu bezala.

Juan Cruz Allik, ez zuen oraingoz azterketa egin beharrik. Baina nota hobetzearren, aurkeztu egin da. Irrela, aukera zuen «Diario de Navarra»k azken orrialdeetan mamiten duen hori ez dela frogatzeko. Alegia, hark ez duela buruan enbeturik jartzeko ohiturarik. Txarpe maiteagoa duela. Begiak bere onetan dituela, eta ez etengabe okerka.

EEk bazuen bestelako ideiarik pentsatuta: lurpeko A-2. Baina unibertsitatean baino, asmoa sozialisten konbergentzian jarria zuen. EEkoak ez dira zientzietako gizonak. Ekuazioetan numeroek ihes egiten diete.

PP-KOAK (eta baita UAkoak ere) PSOEri listoaren fama kendu nahian dabiltza. Zer ote da enbiria! Oposizionerako aitxakia ezin hobea topatu dute. PSOEk ETAren txantaiaren aurrean etsi egin duela esatearekin, berriro asko luzatu dira haren hitzarmentzuteko. Etxenike izeneko sozialistarenak, esate baterako.

PP beldur da PSOEren eta EAJren arteko adiskidetasunaz. Badaki hilabetemendik aurrera elkar laguntzak mugagarik ez duela izango. PSOEk Estatu espainiarrean gehiengo absolutua galduko balu, heldulekua EAJ izango duela. Eta Ajuria Eneako hitzarmenak ez duela erremedio handirik. «Ter-

TERMINOLOGIA

Harrijasotzaile. *Herrietako jaietan eta zenbait lehiaketatan harriak altxatuz herri kirolean aritzen dena.*

Mario Onaindiak ez ditu gaztetako afizio-ofizioak ahazten. Idazle eta intelektualak zinema munduari kapitulu berri bat eskaini ostean, bere intelektoa politikaren mesederako lanean jarriko duela dirudi. Bere alderdi kuttuna amildegitik urruntzen saiatuko da. Dena emanda. Lardaskan aritzea ez bait da ona.

Madrilen otuko zitzaion EE eta PSOE alderdien arteko konbergentzia bultzatzeko kezka, «Cómo levantar 1.000 kilos» filmearen gidoia idazten zuen bitartean. Sekuentzia bat bukatu eta bestea jorratzen ari zela. Hura ere herriminaren gaitzak joko zuela somatuta. Eta berantegi izan gabe, zama astuna arinkeriatan galduko ote zen beldurrez, irtenbide duinaren bila abiatu da. Orain sortu duen pelikua berri honetan ez dira Perurena eta Saralegi protagonistak, 1.000 kilokoarena metafora erretoriko bat baizik ez bait da. Oraingo protagonistak, Lertxundi, Olaverri eta Arozena, besteak beste, jaso beharreko harria gurin irristakor bihurtuko duten martzianoak dira.



EAJ eta HBren arteko elkar hizketaren helburua argitzen hasia da. Mahai Nazional berriaren aurkezpenean Jon Idigorasek azaldu zuenez, «ETA eta Estatu espainiarraren arteko borrokari irtenbidea emateko» balio behar dute. «Negoziazioaren giltzarria Madrilen dago. Gobernua mugimendurik adierazten ez badu, elkar hizketarako asmorik azaltzen ez badu, oso laburra izango da kontaktuen iraupena».

rismoaren kontrako bokorra» delako horretarako, nahikoa direla Corcuera, Jauregi, Ardanza eta Egibar. Gainerako alderdi demokratikoak eskandalu arraka jarrita ere, politika mugitzeko gai izango direla: *«zuk kimikan lagundu eta nik literatura gainditzen lagunduko dizut»*.

KAZETARIOK pozik gaude. Izen teknikoz bataiatu, santu izena jarri ala Muga bezain deitura iradokorra jarri, bolada batean ez dugu autobideari buruzko kronikarik idatzi beharko. Nafarroan bide beretik doazela bait dirudi.

Iñaki Zubiondo

ERDIZ ERDI

EEren azken konberjentzia

A DISKIDE katalandar batek Euskadiko Ezkerraren hurrengo urratsaren bertsio bitxi bat luzatu zigun, afalosteko solasaren beroan: EE izan daitekeela PSOEk hemen duen adarra, PSE siglak desagertuta. Kataluniako PSCko buruzagi erdimailako batek aipatu omen zion. Harridura sortu zuen, hasteko, bitxikeria horrek afaltiar euskaldunen artean. Ondoren, zenbait txiste krudeletarako gaia ere eman zigun. Azkenean, Kataluniako sozialistei Mario Onandiak «motoa saldu» diela erabaki genuen. Gipuzkoako diputazioaren erdia ere beren esku hartzea lortu dutenean hasiko dituk beren siglak baztertzen!



PELLO ZUBIRIA
«Egunkaria»ko zuzendaria

EGIA da luzaz koadro faltan-eta ibili direla PSOEkoak hemen, eta alderdi horretako partaide eta ordezkari izateak hainbat burukomin ematen zuela garai batean. Baina gaur ez, adiskidea, PSEk bere burua saltzeko ez dauka PSCk bezala bere bertakotasuna aldarrikatzen ibili beharrik, alderantziz, Buesaren harrokeriek erakusten dute euskararen kontrako militante belijerante bat egon daitekeela lehendakari abertzalea duen Jaurlaritza batean hezkuntzaren arduradun. Mahaikide bat Usurbilgoa bait genuen, afaritan, bere anekdota kontatu zuen: Usurbilgo udalean den kontzejal sozialista bakarra aurreko legealdian Hondarribian izan da zinegotzi, eta aurreko lau urteetan berriz Errenterian. Hala ere botoa eman diote Usurbilgo etorkinek, edo akaso horrexegatik eman diote, herrian bizi ez den gizon bati.

EUSKAL Iraultzarako Alderdia-EIA baten izenean ageri da Euskadiko Ezkerrak Donostian duen egoitzako telefonoa, oraindik ere. Estrategia politiko-militar baten eraginez iraultza egingo zuen alderdia orduko MCErekin elkartu zen, iraultza eta independentzia lotzeko. Hurrengo ezkontza PCEkoekin, nazionalista bakarrak omen diren euskal abertzaleen eta inongo nazionalismorik gabe beren burua espainoltzat dutenen arteko kontraesanak gainditu eta nazio proiektu berri bat eraikitzeko. Eurokomunismoa, PCI, Acchille Occhettoren izena, ikasten hasi ginen. Orain Euskal Autonomi Elkartean bi alderdi sozialdemokrata egotea ezinezkoa dela eta bien konberjentzia eginen dela diosku Mariok. Baina konberjentziarik ez da izango, «Cambio 16»ean idazteak Juan Tomas de Salasen sozio izateko eskubiderik ematen ez duen neurri berean. Nafarroakoek Urralbururen etxera ate joka joan behar dutela esan diotenean ohartu da Arozarena gizarajoa. Berandutxo.



Urrats Berri eztabaida prozesua burutu berria du Herri Batasunak

HBren etorkizuneko gizartea definitzeko lehen urratsa

Herri Batasunak iaz ekin zion berritze prozesuari, eta oraintsu bukatu berria du, Mahai Nazionaleko kide berriak aukeratu ondoren. Lau txostenen ingurukoa izan da Urrats Berri eztabaida prozesua, baina bigarrenak, «Abertzaleen eta ezkerraren proiektu amankomunerantz» izenekoak izan ditu gora-beherarik handienak. Alegia, HBk zer gizarte mota eraiki nahi duen zehazteko garaian bildu dira ikuspegirik desberdinenak. Munduaren zabalean gertatutako aldaketak zer ikusi handia izan du prozesuan, sozialismoa eta hainbat terminok definizio berria merezi dutelakoan.

HERRI Batasunako militantziak lau txosten eztabaidatu ditu lau bat hilabeteren buruan. Mundu zabaletik hasi eta Hego Euskal Herriraino, gaur egungo egoera politikoa aztertu zuten lehenik. Urtarriletik aurrera, HB zer den eta zer gizarte mota eraiki nahi duen zehazteko ahaleginetan aritu dira. Hirugarren txostenak borroka ideologikoa izan du aztergai. Eta azkenik, laugarren saioan HBren egituraketa berria zehaztu dute. Azken pausoa, Mahai Nazionalaren funtzioa eta osaketa berritzea izan da. 6.000 pertsona inguruk parte hartu du eztabaidetan.

Lau txostenen muina aztertzeak merezi badu ere, eztabaida gairik korapilotsuenak ekarri ditugu orriotara. Hain zuzen ere, eraiki nahi den gizartea definitzerakoan azaleratu diren tira-birak.

Planteamendu ezkertiarraren definizioa, autodeterminazio eskubidea, feminismoa, antimilitarismoa, borroka armatua, instituzioetan parte hartzea eta tesi kapitalisten indartzea izan dira gairik eztabaidatuenak herri gehienetan.

Herri Batasunako militante askoren aburuz, autodeterminazioa ez da eskubide unibertsala. Txostenean aipatzen zenarekin bat ez datozen hauek zalantzak dituzte eskubide hori herri guztiek merezi ote duten aitortzeko garaian. Independentzia helburu duten herri hauek zein gobernu mota defendatuko luketen kontuan hartu beharko litzateke. Alegia, emendakinaren arabera, goitik-behera ezkertiarrak diren herriei aitortzen zaie autodeterminazio eskubidea. 'Garantiarik' ez duten herriak ed batik bat eskubitarrak dir nak, ez lirateke kontu hartu beharko.

Autodeterminazio esk bideari buruzko emendak hau onartu ez bazen e eztabaidetan parte har duenaren % 40ak hobet du, Iñaki O'Shea, Urrats Berriko koordinatzaileak azald du duenez. Emendakina azaltzen duena ez da her konkretu baten asmoa so lik. Herri gehienetan bi da zalantza bera.

6.000 militante inguruk parte hartu du eztabaidetan eta HBko Mahai Nazional berriaren hautaketan ●

«Positiboa baina luzeegia»

Erabakitakoaren arabera autodeterminazio eskub dea herri orori errespeta behar zaio, herri ororen o narrizko eskubidea bait da.

Feminismoa izan da lur jo duen beste eztabaidetak ko bat. HBk zein eredu s zial defendatu beharko ken zehazteko, 300 pa emakumezko bildu zir

HBko Mahai Nazionaleko kide berriak. HBren organorik gorena Asanblada Nazionala da. Honen esku dago Mahai Nazionalaren osaketa erabakitzea. (Argazkia: Ander Gillenea).

Miren Egaña, Mahai Nazionaleko kide berria:

«Hego eta Ipar Euskal Herriaren arteko harremanetan Nafarroa da giltzarria»

ARGIA. *Ipar Euskal Herriarekiko harremanen ardura duzu Mahai Nazionalean. Helburu horretarako planik pentsatua al duzue?*

MIREN EGAÑA. Hego eta Ipar Euskal Herriaren arteko harremanetan Nafarroa da giltzarria, hauxe bait da zatiketa politiko eta administratiboak garbien ageri dituen herialdea. Gure irudiko, Nafarroatik bertatik lan egitea anitz inportantea da, hemen ez bait ditugu seigarren merindadearekiko loturak sekula galdu. Harremanak historikoki mantentzen dira.

A. *Nondik nora hasi behar duzue? Alderdiekiko harremana estutuko duzue lehenik, herri mugimenduei ekingo diezue...*

M.E. Lan plana diseinatzen ari naiz, eta gero Mahai Nazionaleko kideei aukerketuko diet. Ezer erabaki gabe dago, beraz. Orain arte egin diren saio guztietan alderdiekin ihardun dugu. Dena den, nere ustez, eta jendea nerekin bat etorriko dela iruditzen zait, orain arte egindako lana zabaldu egin behar da. Alderdi politikoekin ezezik herri mugimenduekin ere saiatu behar dugu. Oso positiboa izango litzateke esparrua arras gehiago zabaltzea. Oztopoak anitz izan dira, aurreritzi handiak bait daude. Nolabait esateko, Ipar Euskal Herriko jendeari «Hegoalditis»a jasaten duela iruditzen zaio. Nik, nafarra izaki, ederki asko ulertzen dut hori.

A. *Zein da zure ustez lan horrek duen arazorik handiena?*

M.E. Muga psikologikoak haustea ezinbestekoa da. Bidenabar, Ipar Euskal Herriari errespeto handia zor diogula iruditzen zait. Baina zailtasunak ez nau izutzen. Gogoz hartu dut lana.

A. *HBko jende asko kexu azaldu da Urrats Berri prozesuan Ipar Euskal Herria kontuan hartu ez delako...*

M.E. Pozgarria izan da jende anitz afera horrekin kezkatuta ikustea. Gure militantziak, beste alderdietan ez bezala, nazio proiektua gogoan duela adierazten du horrek. Arrunt positiboa da. Maastrichtekoa bezalakoak ikusi ondoren, HBk ez du amore eman militantziak berak adierazi duenez.

Herri askotan agertu izan dute honako galdera hau: *«Clara Campoamor bezalako erakundeak sostengatu behar al dira?»*. Eztabaida ere, honen ondotik heldu zen. Iñaki O'Shearen ustez, akaso txostenean ez zen proposamena behar bezala argitzen: *«erreibindikazio feministak bultzatu behar dira, baina ez dugu zertan talde guztiekin konforme egon behar»*. Gaia mamitu bazen ere, eztabaidak amaierarik ez zuen izan. Adostasunik ez zegoen. O'Sheak debatea gerorako utzi dela argitu digu: *«horrelako arazoak ezin bait dira baiezko ala ezezko batez erabaki, egun batetik bestera»*.

Antimilitarismoaz mintzatu zirenean beste horrenbeste gertatu zen. Batzuek zalantzak zituzten ez ote zen «bakezaleegiak» bihurtzea proposatzen. O'Sheak dioenez, *«hainbatek kezka zuen, idatzia bere horretan onartuz gero, hurrengo pausoa biolentzia ezaren alde gose grebak egitea ez ote zen izango»*.

HBko militantziaren ustez, antimilitarismoaren inguruko eztabaida ere ez luke botazioak konpondu ko. Aurrerantzean gaiari

Feminismoa, antimilitarismoa, autodeterminazio eskubidea eta sozialismoa asko eztabaidatu dira.

berriro heltzekotan dira.

Borroka armatuari dagokionean, komunikabideek oihartzun handia eman izanda ere, *«ez da gairik debatituenetariko bat izan»* O'Shearen ustez. Hirugarren txosteneko kapitulu batean negoziaketa eta enfrentamentu politikoa aipatu zirelarik biztu zen eztabaida.

Komunikabideetan plazaratu denez, % 86ak gaitzetsi egin ditu ETAren borrokak ezker abertzaleari kalte egiten diola dioten emendakinak. Gaur egun HBk ez du ETA ENAMen abanguardiatzat jotzen, baina % 68arentzat derrigorrezko erreferentzia da.

Negoziaketari buruz ez dute luze ihardun. Txostenean ez zen gaia askorik zabaltzen. Negoziaketa, indar enfrentamenduaren arazoa konpontzeko tresna gisa definitzen dute. Baina negoziaketa prozesua nola garatuko litzateken ez dute aztertu.

Alderdi bilakatzearen kontra

HB batasun herritar bezala definitu du % 83ak. Mugimendu politiko ez konbentzionala izango litzateke, akzio politiko ez normalizatua burutzen duena.

Sozialismoa da, bestalde, HBko militantziaren kezka nagusia. Sozialismo ereduaren amaierak, balore sozialisten krisiak, kapitalismoaren tesien indartzeak...

% 86ak gaitzetsi egin du ETAren kontrako emendakina

herri mugimenduetan oinarritutako iraultzaren gorabeherak, nazionalismoaren eztandak, eta azken aldi honetan albiste izan ditugun aldaketek zer pentsa, eta diskurtsoa aldatu beharra sortu die mugimendu ezkertiarrei, eta noski, baita HBri ere.

Urrats Berri luzeegia eta zabalegia izan da gehienbat goaren ustez. Iñaki O'Shea azaldu duenez, *«lauzpabat hilabetez buru-belarri aritzeak, nekea sortzen du azken bi txostenetan nabarmena izan da»*. Beste alde, *«gai asko geratu da zehaztzilik. Zabalegiak ziren eta tabaidak eta ezin izan dira nahi adina sakondu»*.

Jende asko kexu azaldu da Urrats Berri prozesuan Ipar Euskal Herria kontuan hartu ez delako. Baina O'Sheak dioenez, *«errealeriak bazterrean uzteagatik ez diogu analisian lekurik egin. Orain arte egindako azterketak oso azalekoak edo subjetiboak izan dira. Hego Euskal Herritik egindakoak. Lehen EBrekiko harremanak hobetsi izan ditugu, baina Ipar Euskal Herriko mugimendua oso ezkoz ere zabalagoa da. Harremanak estutu nahi ditugu Patxa-Oldartzen eta EMArekin, eta baita Iraul*

HB-KO MAHAI NAZIONALEKO KIDEAK

HERRIALDE KOORDINATZAILEAK

ANTTON MORCILLO (Araba)
JULEN AGIÑAKO (Bizkaia)
SANTI VAL (Gipuzkoa)
MIKEL ARBELOA (Nafarroa)

ARLO ARDURADUNAK

JOSEBA ALVAREZ (Euskara)
ROBERTO SAMPEDRO (Kanpo hedapena)
CARLOS RODRIGUEZ (Sozio-ekonomia)
JOSE MARIA OLARRA (Herri mugimenduarekiko harremanak)
MIREN EGAÑA (Ipar Euskal Herriarekiko harremanak)
JASONE MANTEROLA (Kanpo harremanak)
RUFINO ETXEBERRIA (Eraketa)
ADOLFO ARAIZ (Politika instituzionala)
TASIO ERKIZIA (Arlo Teknikoa)

ERIZPIDE NAZIONALAREN ARABERA AUKERATUTAKOAK

JON IDIGORAS
FLOREN AOIZ
IÑIGO IRUIN
JOSE LUIS ELKORO
ITZIAR AIZPURUA
PATXI ZABALETA
IÑAKI RUIZ DE PINEDO
JONE GOIRIZELAIA
TXOLI MATEOS
MAURICIO OLITE
TXEKUN LOPEZ DE ABERASTURI

EAE-ANVko ORDEZKARIA

AMAIA BAO

Instituzioetan parte hartzeari buruz

INSTITUZIOEK balio desberdina dute gure ustez. Hainbat faktore kontuan izaten ditugu instituzio bakoitzaren balioa zehazteko garaian. Alegia, gure subiranotasun nazionalaren ukazioarekin duten zer ikusia, Espainiako Konstituziotik heldutako marko juridiko-politikoa legitimatzeko zer paper jokatzen duten, herritarren arazoekiko duten hurbiltasuna, herrialdeetako instituzio historikoekin duten harremana eta gure aldarrikapen nazionalak zabaltzeko balio ote duten neurtzen dugu instituzio bakoitza baloratzeko garaian.

Edozein modutan ere, gure aktibitate instituzionala foro horien mugak frogatzera bideratuta dago, eta foro guztietan aplikatzen dugu hori, dagozkien konpententziak ez baditugute. Beraz, gure interbentzioa, erabatekoa izan ala ez izan, deslegitimizatzailea da, eta erabat demokratiko eta partizipatiboa izango den marko instituzionala erreibindikatzen da.

Bestalde, ezaugarri orokor gisa, gure interbentzioa herri mugimenduek eta mugimendu sozialek duten zereginari lotua ikusten dugu. Haien iniziatibak konplementatzeko asmotan, eta inongo delegazionismo edo sustituismorik egin gabe.

ADOLFO ARAIZ
HBko Mahai Nazionaleko kidea

INSTITUZIOA	PARTE HARTZEKO MODUA	ERABAKIA
UDALAK	Parte hartze iraunkorra. Praktika normalizatu gabea, integratu gabea	Herri Batzordearen edo Herri Batzarrearen esku
BATZAR NAGUSIAK	Garrantzi handiko arazo politikorik eztabaidatuko balitz edota arazo munizipal inportanterik aztertuko balitz	Herrialde Komitearen edo Herrialde Batzarrearen esku
NAFARROAKO PARLAMENTUA	Parte hartze ez iraunkorra. Bitarteko instituzioa dela kontuan hartuta, nazio eraikuntzarako proiektuan aurrera egiteko balio lezakeen neurrian	Herrialde Komitearen edo Herrialde Batzarrearen esku
EUSKO LEGEBILTZARRA	Parte hartze ez iraunkorra. Garrantzi handiko gai politiko edo sektorialak aztertzen direnan soilik. Praktika ofentsiboagoa	Mahai Nazionalaren esku
MADRILEKO KONGRESUA ETA SENATUA	Noiz edo noiz. Subirotasun nazionalari lotutako gaiak azalduko balira	Mahai Nazionalaren esku
EUROPAKO PARLAMENTUA	Parte hartze iraunkorra	Mahai Nazionalaren esku

tolekin edota antzeko mugimenduekin. Bestalde, jende asko dabil bere kasa, erakunde eta mugimenduetatik kanpo, eta horiek ere kontuan izan behar ditugu».

HBko herri batzorde bakoitzak bina arduradun izendatu behar izan ditu Urrats Berriren antolatze lanetarako. Beraz, 600 pertsona egon dira debateari zuzenean lotuta: 300 moderatzaile eta beste horrenbeste dinamizatzaile. Dinamizatzailea beste herriren batekoa izatea planteatzen zen. Askotan, *«jendeak mesfidantza izaten bait du bertakoekin, aspalditik elkar ezagutzen dutelako»*. Askok ez zuten hasieran dinamizatzailearen papera begi onez ikusten. Komisarioaren lana egin zezakeela edo debatea oztopa zezakeela uste zuten, baina prozesuaren ostean egin duten inkestaren arabera, susmo txarra baizik ez zen. Gehiengoari ezinbestekoa eta gainera bikaina iruditu zaio dinamizatzailearen papera.

Jende asko kexu azaldu da Urrats Berri prozesuko analisietan Ipar Euskal Herria kontuan hartu ez delako ●

Militanteak ez dira komunikabideekin bat ere fio. Hasieran iritzia emateko erreparo handiak izan dituzte. HBko kide batek azaldu duenez, *«iritzia emateak ez gaitu beldurtzen, baina kazetariak edozeri usain berezia somatzen badio, titulu handian ipintzen du hurrengo egunean, HB banatzeko zorian egongo balitz bezala, edo kontraesan handiak izango balitu bezala»*.

Garbiñe Ubeda

EZPALAK



POLIZI LEGEAREN KONTRAKO EMENDAKINA AURKEZTU DU HB-K

HERRI Batasunako ordezkariek Polizi Lege proiektuaren osoko emendakina aurkeztu berri dute Gasteizen. Proiektu hau, HBk dioenaren arabera, *«gure herriaren helburuak erreprimitzeko sortu da, eta ez gure eskubide indibidualak eta kolektiboak babesteko»*. Polizi Legea Gasteizko legebiltzarrean aurkezten den egunean, HB bertan izango da proiektua bazter dezaten eskatzeko.

Emendakinean kritikatzen denaren arabera, proiektu honek langilegoaren oinarrizko eskubideak ukatzen ditu. Esate baterako, greba egiteko eskubidea. Tasio Erkiziak azaldu duenez, *«lege espainiarra aplikatu nahi da EAEn»*. Gainera, *«polizia lokalak eta miñoiak Ertzantzak irensten baditu, udal autonomia murriztuko da»*.

PAKITO ETA FITIREN ESTRADIZIOA ESKATU DU FISKALGOAK

MADRILEKO Entzutegi Nazionaleko Fiskalgoak Francisco Mujika Garmendia «Pakito» eta Jose Maria Arregi Errostarbe «Fiti»ren estradizioak eskatu ditu. Hamahiru ekintza armatu agindu izana leporatzen diote Pakitori, eta Fitiri beste zortzitan parte hartu izana. Jose Luis Alvarez Santacristina «Txelis»en estradizioa ez dute eskatuko oraingoz.

Entzutegi Nazionaleko Fiskalgoaren ustez, komando ibiltariak (Unai Parot buru zuen garaian) egindako atentatu asko Mujika Garmendiak agindutakoak dira. Horien artean, Carmen Tagle Entzutegi Nazionaleko fiskalaren kontrako atentatua eta 1987ko urtarrilean autobus militar baten kontra egindakoa besteak beste.

PSOE INDEPENDENTZIAREN BELDUR

PSOEko kideek ez dute Euskal Herriaren independentzia gustoko. Aberri Egunaren ostean azaldutakoaren arabera, proiektu horrek, *«euskal gizartea banatu eta desintegratu egiten du; isolamendua eta txirotasuna dira horren etorkizuna»*.

PSOEko buruen ustean, gizarteak eta demokraziak makina bat aldiz frogatu dute *«HBk nahi duena aldarrika dezakeela, baina demokrazian eta bakean egin behar duela, botoen bidez, eta armak bazter utzita»*.

HITZEZ HITZ



«ETA eta Herri Batasunaren artean beti egon da komunikazioa».

Floren Aoiz, HBko Mahai Nazionaleko kidea. Egunkaria, 92-IV-19.



«Gaur egun, EAJ-PSOE koalizioa da Euskal Autonomi Elkarteko gobernurik naturalena».

Ramón Rubial, PSOEko lehendakaria. Deia, 92-IV-21.

«Urralburuk hobe luke, UPN xaxatzen ibili beharrean, bere alderdiko kideak konbentzituko balitu terroristen txantaiaren aurrean amore eman ez dezaten».

Jaime Mayor Oreja, EAEko PPko lehendakaria. El Mundo, 92-IV-21.

GORDETZEKOAK

«Garai batean Lemoizeko borroka irabazi genuen, gaur Leitzarangoa eta etorkizunean autodeterminazioarena irabaziko dugu».

Joxe Mari Olarra, HBko Mahai Nazionaleko kidea. El Correo Español, 92-IV-23.



«Trazatuaren aldaketaren ostean, Etxabe eta Urrutia aske utziko dituztela esan ondoren, eta HBren eta terroristen aurrean beste hainbat gauzatan amore eman ondoren, guztiak porrot egiten duenean, sozialistak ortodoxiaren zaindari gisa agertuko zaizkigu berriro».

Rafael Gurrea, UPNko idazkari nagusia. Diario de Navarra, 92-IV-23.

UNAI PAROTI ABOKATUAREKIN ELKARTZEA UKATU DIOTE

JEAN François Blanco abokatuari ukatu egin diote Unai Parot bere bezeroarekin biltzea. Unai Parot Alcalá-Mecon dago espetxeratuta, eta egunotan abokatuaren zain zegoen, aurki izango duen epaiketa prestatu behar bait zuten. Blancok Estatu frantziarreko Justizia ministroari debekua ezabatzen laguntzeko eskatu dio, *«akordio europarrean onetsitako eskubideen kontrako jokaera bait da hau»*.

KARTA JOKOAN

enbido...

JOSEBA ZUBIA

Itun Autonomikoaren saltsa-maltsatan dabiltzanak harrituxe geratu dira Manuel Fraga Iribarne Galiziako Xuntako lehendakariaren proposamenarekin. EAEko Lehendakaritza eta Garapen Autonomikorako kontseilariari, Fragari ez bezala, ez zaio bidezkoa iruditzen administrazio bakar baten alde apostu egitea. Joseba Zubiaren aburuz, *«orain bi hilabete eskas PSOErekin ituna sinatu zuenak orain ez dezake estatu eredua zalantzan jar, Itunak porrot egin duela adierazten bait du»* ●

...ordago!



MANUEL FRAGA

PPko liderra izan zenak ez du Joseba Zubiak azaldutako kontraesanik inondik inora ikusten. Gainera, badaki Administrazio bakarreko proposamen hori Euskal Herriko eta Kataluniako nazionalistek, orain ez bada beranduxeago, onartu egingo dutela. *«Ondo ulertu ez bada ere, nere proposamena konpetentzia guztiak lortu ondoren aplikatuko litzateke»*. Fragak dioenez, lehenengo fasean elkarte historikoei aplikatuko litzaieke, *«baina horrek ez du esan nahi, gainontzeko komunitateek eskubiderik ez dutenik»* ●

Mexikoko Guadalajarako hondamendiak 300 pertsona hil zituen eta 1.500etik gora zauritu. Desagertuak ere ugariak dira. Telebista eta argazkietako irudiek keinu okerra ekarri ziguten ahora. «Tira, edonori gerta dakioke». Baina edonori ez zaio gertatzen, mundu garatuan ez dira horren istripu odoltsuak gertatzen edo askoz ere neurri apalagoan. Miseriak miseria dakar beti, eta Hirugarren Munduko miseriak badu erantzukizunik. Nikaragua, Bhopal, Bangladesh, Mexiko... Natura zein multinazionalak gupidagabeak dira, eta txiroa da bietan kalteturik handiena.

Espainiar harrotasunaren garaia

MUNDUKO ikuskizunik handiena omen den erakustokia zabalik geratu zen Sevillan iragan astean: Expo-92a. Eta, akaso, hala izango da. Ez litzateke harritzekoa, historian zehar, inperio handiek euren ospakizunik garrantzitsuenak ahalik eta modurik erraldoienean ospatu izan ohi dituzte eta. Espainiaren inperio handien garaiak atzean geratu ziren noski, nahiz eta haien oroitzapenek oraindik baduten indarra espainiar mandatarien artean.

Gura eta ezin. Estatu espainiarraren patua. Bilioi bat pezetatik (50.000 milioi libera inguru) gora gastatu dute Sevillakoa prestatzen (eta bide batez Andalusia osoa) baina han agertutako 'maila' nekez izan daiteke Estatu espainiarrak mundu mailan eskain dezakeen mailaren ispilu. Langabeziaren inguruko legedi berriarekin 'pozarren' izango diren gero eta langabetu kopuru handiagoari galdetzea besterik ez dago, adibideren bat jartzeagatik. Gura ala ez, Europako 'hegoaldekoa' da, eta horrek nahikoa esaten du.

Sei hilabetetan zehar Ameriketako 'Aurkikuntzaren' aingeru soinua entzun beharko dugu etengabe. Zibilizazio batek inoiz beste zibilizazio batekin burutu duen sarraskirik erraldoienaren oroitzapena ospatzen ari dira munduko pertsona zibilizatuak. Gainerakoak basatiak dira, eta garai bateko basatiei bezala, egungoei ere egurra eta beruna dagokie.

PERUN Fujikolpea instituzionaldu geratu dela esan liteke. Peruk, bi lehendakari ditu orain: benetakoa, Alberto Fujimori; eta txantxetakoa, Máximo San Román, Fujimoriren lehendakariorde ohia. Bi botere paraleloren itxura eman nahi dute, baina benetako boterea, armada, Fujimorirekin bat dator. Honek diktadurak urtebete bakarrik iraungo duela iragarri du eta ondoren hauteskunde libreak deituko dituela.

TERMINOLOGIA

Metatu: *Gauzak elkarren gainean multzoa eginez bildu.*

Pasatu den astean bi pertsona hil zituzten EEBBetako beste horrenbeste estatutan. Texasekoa aurtengo bostgarren heriotz zigorra da eta Kalifornian 25 urtetan lehena. Alabaina, mundu zabaleko komunikabideetatik ez da burrunba gehiegirik atera. Apurka, aurrera doa heriotz zigorren itogina, eta gartzeletan etengabe metatuz doaz azken erabakiaren menpe daudenak: oraino 2.500 estatubatuar daude heriotz zigorraren zain. Cubako heriotz zigorrak biziki basatiagoak bide dira antza.

Gertakizunen orain arteko abiada ikusirik, Fujimoriren erregimenak aurrera jarraituko duela esan liteke, eta horren adierazlerik garrantzitsuena dagoeneko EEBBek Fujimori lehendakari moduan onartu dutela da. EEBBen atzean joan dira, besteak beste, Argentina eta Japonia.

Ezin ukatu, baina, kolpe honek badituela zenbait berezitasun. Batetik, oraindik herritarren sektore baten konfidantza dauka Fujimorik. Bestetik, nahiz eta Perun errepresioa gauzarik ohizkoena den, kolpistek oraindik ez dute errepresiorik erabili beste 'lehendakaria' sostengatzen dutenen aurka. Peruko arazo larriek sustraietako aldaketak eskatzen dituzte, eta batzuek zein besteek ez dute horrelakoetan sartzeko asmorik.

Sei hilabetetan zehar Ameriketako 'Aurkikuntzaren' aingeru soinua entzun beharko dugu etengabe ●

GERRA batzuk ahuldu eta beste batzuk biztu egiten dira. Afganisteko kasuan, talde gerrilariek lortu duten akordioarekin, garrak guztiz itzaltzekotan ageri dira. Txinpartak, ostera, guztiz itzali barik geratzen dira. Talde gerrilarien arteko desberdintasunak handiak dira, eta zuhurtasun handia beharko da sua berriro biztu ez dadin.

Balkanetan ere suteak aldenik alde dabiltza, eta Bosniakoek haize bero boladen laguntza izan dute. Serbiak eta haren armadak ez dituzte Bosniako lurralde 'serbiarrak' galdu gura, baina ez dute asmatzen lurralde horietako serbirrei laguntza emateko moduaz. Eta jarreraz aldatu ezik, berriro jaus daiteke isolamendu gordinenean.

Lukas Martinez

MUNDUA EZ DA BIRIBILA

Bizidun asmatuak

ZIENTZIA fikziozko gaia ematen badu ere, aktualitate gordina besterik ez da bizidun asmatuena, eta pilpilean dirakien eztabaida, gainera. Biogenetikak gaur egun landare, abere zein gizakietan aldagaiak txertatuz, bizidun mota berriak mundura ekartzeko duen ahalmenaz ari naiz, eta guzti horren ondorio politiko sozialak dira eztabaida mamitsu baten muina Europako Komunitatean azken bost urteetan. Izan ere 1988 urtean egin zuen gai hori buruzko lehen proposamena Kontseilu europearrak, eta horren ondoren kateatuz joan dira ikuspuntu kontrajarrian, gaur egun korapiloz beteriko nahastea agertzen delarik.

DUELA bost urtetako proposamen hartan jadanik planteatzen zen bizidun asmatu hauek patentatzeko ideia, eta halakoetan izan ohi den bezala, errealitatearen atzetik zetorren oraingoan ere arautu nahia: urte hartan bertan ba omen ziren 800 entrepresa Europan, 1.000 Estatu Batuetan eta 300 Japonian ikerketa bioteknologikoak burutzen. Gauzak horrela, europearren konpetitibitatea arlo horretara ere bultzatu beharra argudiatu zuen Komisio europearrak igazko apirilean agindako txostenean, bizidun berrien patenteak erregistratzea proposatuz.

KARMELO LANDA
HBko europarlamentaria

Bizidunen patenteak onartuko balira, era askotako ondorioak izango lirateke hortik, dudarik gabe: bizitzaren kate naturalean halako esku-sartzea egiteak izugarrizko erantzunkizunak ditu, maila etiko zein ekologikoan, baina baita ekonomian, politikan eta zientzian ere.

ORAINGO eztabaida korapilotsu horien bidez, lehen begirada besterik ez dugu lortu arazoaren sakontasunean, eta jadanik agertzen dena nahiko beldurgarria da; besteak beste, 'erosio genetikoa' aipatzen da arrisku handi bezala: bizidun baten espezie-aldagai diferenteen artean burutzen den 'selekzioaren' ondorioz, espezie-aldagai gehienen desagerpena, alegia. Iturri genetikoak, gaur egun agortuezinak badirudite ere, lehortu egingo lirateke: adibide bat jarriaz, gaur Indian diren 30.000 arroz mota diferenteetatik, 50 baino ez lirateke geldituko, adituen esanetan, erosio genetiko horren ondorioz.

Bizidunen patenteak egiteak sakondu egingo luke, bestalde, Hirugarren Mundua deitzen denaren menpekotasuna lurralde aberatsekiko, eta gizarte garatuetan ere, nekazari eta abeltzainak entrepresa patentatzaileen menpe jarriko lituzke, hauek gehienetan multinazional handiak direlarik.

Muyahidinen garaipenaren ondoren Afganistan libanizazioaren ateetan

Berlineko Harresiaren erorketa gerra hotzaren amaieraren sinbolotzat hartu izan bazen ere, 1990ean hura deuseztu zenetik Afganistaneko gerrak aurrera jarraitu zuen, historiatik atera guran edo. Egun, 13 urtetako gerraren ondoren, talde gerrilariak Kabulen sartzekotan daude. Alabaina, euren arteko desadostasunek, Afganistan Libano berria bihurtuko ote duten susmoa gero eta hedatuagoa da.

AFGANISTAN etnia eta talde tribal ugariren artean osatutako estatua da, eta monarkiak guzti hauek elkarrekin mantentzea lortu bazuen ere, 1973an errepublikaren aldarrikapenarekin, arazoak bata bestearen atzean etorri ziren. 1979an hasi zen gerra zibila eta gaur egun arte iraun du sovietarren aldeko erregimena eta gerrilari musulmanen arteko gatazkak.

Soviet Batasunak dirutza eta bizitza ugari utzi zituen Afganistaneko lurraldeetan. Beronen erretiratzearekin Najibullahren erregimenak egun gutxirako zuela uste bazen ere, honek gaur egun arte iraun du. Orain, talde gerrilariak Kabuleko ateetan daude, bertara sartu aurretik boterea nola banatuko duten erabaki ezinik.

Eta orain arte erakutsi denez, gaitz samarra izango zaie akordioren batera heltzea, batez ere Hezb-i Islami talde nagusietakoa dena. Akordio bateratuaren aurrean horrenbeste oztopo rekin jarraitzen badu. Talde gerrilari anitz daude, baina horien artean Ahmad Shah Massud-en Jamiat Islami (Gizarte Islamiarra) eta Gulbuddin Hekmatiar-en Hezb-i Islami (Alderdi Islamiarra) dira garrantzitsuenak. Massud-en indarrak iparraldeko lurralde gehiena tsuena kontrolatzen dute eta Hekmatiarrenak ekialdekoak, Pakistanekin mugak egiten dutenak.

Beste talde asko badaude ere, une honetan Kabuleko ateetan dauden bi talde nagusi horien arteko akordioa



Gerrilariak Kabuleko ateetan zain daude eraso egiteko ordena itxaroten.

da bakearen giltzarria. Najibullah lehendakari ohiak NBEren bulegoan topatu du babesa India aldera ateratzeko aukeraren zain. Boteretik aldendu dutenek, erregimenekoak baita ere, prest agertu ziren boterea *muyahidin*en (gerlari islamiarrak) eskuetan gera zedin. Teorian behin behineko gobernu bat osatu beharko lukete guztien artean, eta ondoren hauteskunde libreak deitu.

Talde gehientsuenak bat datoz estatu islamiarra ezartzearekin, hots, *sharia* edo lege islamikoaren pean funtzionatuko duen estatua. Une hauetan etorkizun urrutiko desberdintasunak baino epe oso laburrekoak dira akordioa oztopatzen dutenak. Hezb-i Islamiko Hekmatiarrek dioenez, bera da Afganistaneko talderik indartsuena eta hori, eratu beharreko islamiar kontseiluan nabarmendu egin behar da. Beste modu batera esanda, kontseiluaren norabidea kontrolatu ahal izatea.

Iturria: "Le Monde Diplomatique" 1991ko martxoa

Tadjikistan handia

Etnia guztien artean paxtunena da populazio gehien biltzen duena, eta Afganistanen sorreratik, botere zentrala ere beraien eskuetan izan ohi da. Baina botere zentralak beti izan ditu muga handiak bere indarra guztiz inposatzeko, eta estatuaren antolaketak zerikusi handiagoa izan du botere feudalarekin, estatu zentral modernuarekin baino.

Gerra zibilean zehar ere botere banaketa hori desadostasun ugariren eragile izan da, sarritan talde gerrilarien arteko borrokaraino iritsiz. Hauen artean aipagarriena Massud eta Hek-

Hamahiru urte iraun izan duen gerra honek milioi bat pertsonaren heriotza sortu du, eta orain gerra muyahidinen artera heda liteke ●

matiarren arteko etengabeko enfrentamendua izan da. Izan ere, euren artean izan ditzaketen desadostasunez gain (Hekmatiarren taldea erradikalagoa eta fundamentalistagoa da besteak beste), Massud-en Jamiatekoak etniaz tadjikak dira. Tadjikek, populazioaren herena, bigarren etnia garrantzitsuena osatzen dute.

Massud eta Hekmatiar buruzagien elkar ulertzea da Afganistaneko etorkizunaren giltzarria ●

Hezb-i Islami ei da talderik garrantzitsuena eta arma gehien dituen taldea, baina Jamiat Islamiren garaipenak izan dira oihartzun handiena lortu dutenak. Massud komandantea militar ospetsua egin da mundu guztian zehar. Orain Kabuleko iparraldean daude hiriburura sartu zain, baina askoren ustez ez dago garbi Massuden benetako proiektuak Afganistani so egiten dion. Tadjika izanik, bere benetako helburua Tadjikistanekin bat egitea eta Tadjikistan handia eraikitzea ei litzateke.

Baina orain arte behintzat Kabuleko ateetara Hekmatiar baino lehenago iritsi da eta badirudi iparraldeko fronteak indar handiagoa izan duela Watan gobernuko alderdiarekin negoziatzeko orduan. Massud izan da Adbul Rahim Hatif behineko lehendakariarekin botere iragapena negoziatu duen lehena. Negoziazio horretan, gerrilariek hiriari ez ziotela eraso egingo agindu zuten. Baina gerrilariak —Hekmatiarren erruz batez ere— ez dira kontseilua osatzeko akordiora iristen, eta ondorioz talde gerrilariek batetik bestera eman diezaiokete hasiera hiriburuaren erasoari.





Gulbuddin Hekmatiar Hezb-i Islami alderdiko buruzagia eta Ahmad Shah Massud Jamiat Islamikoa. Biak etsai amorratuak dira eta laster akordioren batera iristen ez badira, euren arteko gatazka has liteke batetik bestera.



Sovietarrak 1979an sartu ziren Afganistanen eta gertakizunak gerra hotzaren berotze izugarria ekarri zuen; handik 10 urtetara erretiratu ziren, 1989an. Haien erretiratzeak bakea eta gerrilari eta erregimenaren arteko gobernu berria ekarriko zuela uste bazen ere, azkenean gerrilariak nagusitu dira.

Estatu islamiarren garaipena

Sobiet Batasunak eta Estatu Batuek, teorian bederen, Afganistaneko afera alde batera utzi zutenean, NBEk bere gain hartu zuen gatazka konpontzearen ardura. 1991ko maiatzean bake-plangintza aurkeztu zuen eta gerrilariek ezik, arazoari murgilduriko gainerako estatuek bat egin zuten berarekin. Honen arabera, Afganistan estatu ez lerrokatua eta islamiarra izango zen. Halaber, autodeterminaziorako zuen eskubidea azpimarratu eta behin behineko transizio gobernuaren eraketa aurrikusten zen.

Transizio gobernurako NBEk talde guztien onar-

pena izango zuen intelektualen gobernu batean pentsatu zuen, zenbaitzuk atzerrian bizi ziren afganiarrak gainera. Bertan izango ziren orain arteko erregimenaren kideak ere.

Hasieran estatubatuar eta sovietarrek laguntza militarra emateari uko egin ziotenean, inork ez zuen pentsatzen Najibullah-ren gobernuak asko iraun zezakeenik. Baina ezta ere gerrilariek gobernua menderatuko zutenik. Hortik, NBEren plangintzaren izatearen arrazoia. EEBBek eta SESBk akordioa lortu zutelarik, Pakistanek eta Saudi Arabiak ere, *muyahidin*ei laguntza militarra emateari uko egin zioten.

Saudi Arabiak, ordea, argi utzi zuen ezin izango zuela talde pribatuen laguntza debekatu. Berdintsu Pakistanek. Eta funtsean horrela izan da, gobernuek ez baina talde pribatuek bai. Eta bide horretatik, *muyahidin*ek laguntza jasotzen jarraitu izan dute Najibullah-ren erregimena menderatu harte. Horrez gain, ISIk ere (Pakistaneko zerbitzu sekretuak) gerrilariak laguntzen jarraitu izan du.

Jadanik bukatuta dagoen gerra hotzaren azken gatazkagune garrantzitsuena moduan har litekeen gerra honetan, 13 urtetan zehar milioi bat hildako izan dira. Afganistaneko ekonomia lur jota geratu eta urte asko beharko dituzte orain artean suntsitutakoa birreraikitzeko. Islamiar erradikalen garaipen bat izan dela esan liteke eta, beharbada, laguntza handienetakoa eskaini duten EEBBek ere sorpresa bat baino gehiago har dezakete etorkizunean.

Etorkizunean, halaber, Afganistaneko iparraldea eta hegoaldearen arteko tirabirak ere izan litezke estatu 'berriaren' arazo iturri nagusienetakoa. Iparraldean Massuden Jamiat Islami nagusi, eta Hegoaldean bere etsai amorratua: Hekmatiarren Hezb-i Islami. Gerran zehar, Massudek bere alde izan ditu iparrekialdeko tribuetako komandante ugariak. Hauek, gorabeherekin, baina orohar euren kasa aritu izan dira. Gehiegi maite dute euren askatasuna eta orain arte izan duten euren boterea. Aliantza honen adierazlerik argiena Iparrekialdeko Bigilantzia Kontseilua izan da, eta ikusi beharko da etorkizunean nolabaiteko jarraipenik duen ala ez.

Massuden begiak ez omen daude Afganistanera begira; bere helburua Tadjikistanekin batera Tadjikistan Handia eraikitzea litzateke ●

Xabier Letona

Afganistaneko garapen politikoa

● **1747:** Ahmad Shah Durani erregearen erregimenaren hasiera. Berau izan zen egungo Afganistaren sortzailea.

● **1933:** Zahir Shah, gaur egun Italian exiliaturik dagoen erregearen koroapena.

● **1973ko uztailak 17:** Estatu kolpea eta Errepublikaren aldarrikapena.

● **1978ko apirilaren 27:** Komunisten estatu kolpea.

● **1979ko abendua:** Sovietar armada Kabulen sartzen da. Babrak Karmal izendatzen dute estatu burua.

● **1986ko maiatzaren 4:** Mohamed Najibullah, estatu burua izendatzen dute.

● **1988ko apirilaren 14:** Genebako akordioa. Beronen bitartez sovietar, estatubatuar, afganiar eta pakistaniar gobernuek, sovietarren erretiratzea eta afganiar alde desberdinei ez laguntzea erabakitzen dute.

● **1989ko otsailak 15:** Armada sovietarraren erretiratzearen amaiera.

● **1991ko maiatza:** NBEk bake plangintza plazaratzen du. Afganistan ez lerrotua eta islamiarra aurrikusten da. Transizio gobernua planteatzen da.

● **1992ko apirila:** Najibullah lehendakaritzatik kanporatu ete bere ordez Adbul Rehim Hatif izendatu zuten lehendakari. Honen eginbeharra boterea gerrilarien eskuetan uztea izango da. Bitartean talde gerrilariek inguraturik dute Kabul, hiriburua, eta egun batetik bestera izango da beraien eskuetan.



HISTORIA ETA GERO

PALESTINAKO FUTBOL SELEKZIOA

PALESTINA estatu eta lurralderik gabeko herria da, baina hala ere ez zaio futbol selekzioa falta. Munduko ekipo desberdinetan sakabanatuta zeuden palestinarrak bildu eta Tunezen aritu izan da entrenatzen Palestinako selekzioa. Berezitasun ugari agertzen ditu selekzio bitxi honek. Sasoika egunero entrenatzen dute Tunezeko hondartza batean, eta taldearen herenak ez du baimenik zenbait estatutan sartu edo beste zenbaitetatik ateratzeko. Ez dute inoiz etxean jokatzen, ezta euren publikoaren txalo eta algarapean ere. Euren ilusiorik handiena, *«etxean jokatzea da, Jerusalemen»*.

EEBB-ETAN HILTZAILEAK KROMOETAN

DAGOENEKO EEBBetan astakeria edo gertakizunik handiena pasa liteke eta gainerako mundutarrok ez gara gehiegi harrituko. New York-en gizarte mailan sortu dén azken eztabaida kromoen inguruan sortutakoa izan da. Baina ez dira kromo normalak, hauen irudietan hiltzaile basatien aurpegiak agertzen dira eta atzeko aldean berorrek burututako hilketa eta sarraski guztien zerrenda. «13 urterekin bere katua txikitu zuen. 1972an, bi neska hil zituen, txikitu eta gorpu zatiak mendian barreiatu...». Kromoak taldeka erosten dira 10 dolar ordainduz.

MUSSOLINITARRAK BERRIRO ITALIAKO LEGEBILTZARREAN

BENITO Mussolinik bere eskainua hartu zuenetik 71 urte geroago bere oinordeko batek, Alessandra Mussolinik, berrriro lortu du eserlekua Italiako legebiltzarrean. *«Ez badidazue nere aitonaren eskainua ematen, lehen ministroarena hartuko dut»*, zioen Duceren ilobak haserre lainezarekin.

ELE MELE



«Estatu gehienetan beriotz zigorra bertan behera uzten denean, batez ere EEBBetan neronek proposatuko dut Estatu Kontseiluan Kuban ere gauza bera egitea».

Raúl Castro, Kubako armada ministroa.

«Aljerian ez zen demokraziarik eten, ban demokraziarik ez da behin ere izan eta».

Sid Ahmed Ghozali, Aljeriako lehen ministroa.

«Varsoviako paktuak guri eraso egiteko plan ugari aurkitu dugu. Ni, alditz, beti egon naiteke gure artxibotegoetan inork topatuko ez duelako eraso agindu bakarra ere».

John R. Galvin, OTANeko komandante nagusia Europan.



OIHARTZUNAK



«Iraganean, munduak pazientzia gehiegi izan du Serbiarekin».

Hans Dietrich Genscher, Alemaniako atzerri ministroa.

«Israel ez da lurralde okupatuetatik inoiz irtengo. Ez da arrazoi politiko edo estrategikoengatik, gureak direlako baizik».

Yithzak Shamir, Israeleko lehen ministroa.

«Populazioa zukutu eta txirotzen duten monetal politika basatiak ezartzen direnean —Venezuela, Brasil, Peru— oso zaila da askatasuna mantentzea».

Alan García, Peruko lehendakari ohia.

HIRUGARREN MUNDUAREKIKO ZANGA ZABALDUZ DOA

MAPA politiko berriarekin sartuko gara XXI mendean. Baina hori, politikoa besterik ez da izango, maila sozialean munduak berdintsu edo okerrago jarraituko du eta. Mundu garatua eta Hirugarren Munduaren arteko zanga gero eta handiagoa da eta, Lehen Mundua deiturikoan bertan ere desberdintasun sozialak etengabe areagotzen ari dira. Horiek dira aurtengo Garapenerako Nazio Batuen Programak (GNBP) argitara eman berri duen txostenetik atera litezkeen ondorio nagusiak. Herrialde aberatsen % 20k munduko errentaren % 82,7 biltzen du, eta txiroenen % 20k, aldiz, % 1,4. Desberdintasunen adierazle diren beste datu makroekonomikoen ugariz gain, bada beste datu bat arras adierazgarria eta ulerkorra dena: bizitza esperantza. Herrialde industrialduetan 75 urtekoa da, eta garapenean daudenetan 63koa.



ESLOVENIAK AURRERA DARRAI ESTATU BERRIA ANTOLATZEN

INDEPENDENTZIA lortu zuenetik garai gogorrak ezagutzen ari da Eslovenia, batez ere bere merkatuaren gune garrantzitsuenetakoa Jugoslavia zelako, eta honek gerra egoera bizi duelako ia etengabe. Bizitza mailak, orohar, behera egin du eta langabezia hazi egin da. Halaber, inflazio tasa % 276 handitu da. Hemendik aurrera Janez Drnovsek, lehen Jugoslaviako lehendakaritza kolektibokoa izandakoa, izango da lehen ministroa. Orain arte kristau demokratak izan dira gobernuan, eta hemendik aurrera zentru-ezkerreko koalizioa izango da bertan. Bere zeregin garrantzitsuenak, industriaren pribatizazio legea amaitzea eta datorren udazkeneko hauteskunde orokorren prestaketa izango dira.

Autobidearen bi tramu amaitu dira dagoeneko, eta beste biak aurrera doaz

SAKANA, EZTABAIDAK DIRAU

Altsasutik Iruñerako bidean abiatuta, Sakanako autobiaren eraikuntza lanei gainbegirada bat emanez gero, autobidea bukatzear dagoela dirudi. Hala ere, Nafarroako Gobernuaren proiektu honen aurkako jarrera dutenentzat, oraindik erabakitzear dagoen auzia da. Martxoaren hasieran Sakanako Herrien Biltzarrak kontsentsurako deia luzatu arren, Ihabar eta Ekai herrien artean dagoen tramua ireki egin zen hilebete beranduago.

MARTXO eta apiril hasiera bitartean izan diren bi gertakari hauek, Sakanako Herrien Biltzarrak (autobide honen aurkako koordinakundea) egindako kontsentsurako deialdia eta tramu berriaren irekiera, polemika luze honen adierazleak besterik ez dira.

1988ko bukaeran Sakanako autobidearen proiektua plazaratu zenetik, honen inguruko eztabaida eguneroko gaia bilakatu da Nafarroako bailara honetan, bai instituzioetan, baita herritarren artean ere. Testuinguru honetan sortu zen Sakanako Herrien Biltzarra. «Batzorde hau, lehen momentuan, bailarako zinegotzi batzuen bileren ondorioz sortu zen —adierazi digu koordinakunde honetako partaide batek—; koordinakundea zabaltzen joan den heinean Sakanako herri guztietako partaideak biltzen joan da, gaur egun herri koordinakundea bilakatu arte».



Eskubiko zubia bide zaharrekoa dugu. Ezkerrekoa, egiten ari den autobiakoa. Arruazun daude biak.

Proiektu nagusien konparaketa

Autobide honen historian zehar egoera desberdinak izan dira. Hauteskunde kanpaina eta gobernu aldaketa izan dira Nafarroan. Autobidearen proiektua PSOEk egin zuen, eta batzarrekoek gogoratzen digutenez, *«PSOEko gobernuak egindako proiektuaren arabera, autobidean gorraio motelak ezingo lirateke ibili, eta hesituta egongo litzateke»*. Sakanako autobidean bataz besteko abiadura 120 km/ordukoa izango litzateke eta 16 sarrera izango lituzke. Errepi-



de honentzat aurrikusita dagoen zabalera 34 metrokoa (12 metroko mediana) da, eta obra guztiaren aurrekontua 12.000 milioi pezetakoa (600 milioi libera).

Modernitatearen garapena, aurrerapena eta Europarekiko parekatzea lortu ahal izateko, Sakanako autobidea beharrezkoa dela mantendu zuen PSOEko gobernuak proiektua aurkezterakoan. Batzordekoek azaldu digutenez, *«gobernuaren ustean Atlantikoko ardatza eta Mediterranioko ardatza lotzeko garraiobide egokiak eta modernoak bebar dira. Honetaz gain, proiektu ofizialak Sakanako autobideak izango duen kalitatea eta ziurtasuna goraipatzen ditu, gaur egungo errepidean dagoen istripu tasa altua azpimarratuz. Guzti honen ondorioz autobideak Sakanarako garapena ekarriko duela dio, enpresa berriak, lanpostu berriak...».*

Hauteskundeen ondoko mapa politiko berria erabakiorra suertatu da gatazka honetan ●

Gaur egun Nafarroko agintea duen UPNk ere obra hauek bukatzeko beharra azaldu du. *«Sakanako Herrien Biltzarrak defendatzen duen bikoizketa proiektuaren arabera egindako errepidean* —diote koordinadorako partaideek—, *garraio motelek ibiltzea posible izango dute, eta bidea ez da behituta egongo. Bide zaharra*

Kronologia

- 1986an egindako errepide plangintzan Sakanari buruzko azaleko ikerketa bat egin zen.
- 1988ko bukaeran autobidearen A-120 proiktua plazaratu zen.
- 1989ko maiatzean Sakanako Herrien Biltzarra sortu zen.
- 1990eko otsailean, 6.000 sinadura bildu zituen Biltzarrak proiektu ofizialaren aurka.
- 1990eko udan erabat onetsi zen proiektua.
- 1991ko lehen hilabetean obrak hasi ziren. Sakanako Mankomunitateak bere ikerketa plazaratu zuen.
- 1991ko maiatzean hauteskundeak eta gobernu aldaketa.
- 1992ko martxoan Biltzarrak adostasunerako proposamen bat aurkeztu zuen.



A-120 proiektuaren arabera, autobidea 1994rako amaituta egongo da.

aprobetxatu nahi da. Bikoizketa proiektu honek 16 sarrera eta 80 km/orduko bataz besteko abiadura proposatzen ditu. Errepidearen zabalera 20 metroraino mehartzen da eta aurrekontua berriz 8.000 milioitan gelditzen da».

Proiektu ofiziala baztertu nahian, eta bikoizketaren alde, zenbait mobilizazio egin dituzte: manifestazioak, txirrindu martxak, enkarteladak... *«Honetaz gain, aipagarria da 6.000 sinadura biltzea lortu dugula, gobernu nafarraren proiektuaren aurka. Horrek Sakanako botoemaleen erdia inguru suposatzen du»*, adierazi digute biltzar honetako partaideek.

Sakanako Herrien Biltzarrak salatzen duenez, Sakanako autobideaz hitz egiteko aukera zuzenik ez da egon oraindik. Batzorde honen ustez, *«autobide bat justifikatu ahal izateko 13.000 ibilgailu behar dira eguneko, eta Sakanatik 6.000 pasatzen dira. 120 km/orduko bataz besteko abiadurarekin 16 sarrera egotea kontraesana da. Errepidea irekia izanez gero sare sekundarioren beharrik ez dago»*. Ingurugiro inpaktuari buruzko ikerketarik ez dela egin kritikatzen dute. Eraso ekologikoak salatzen dituzte: *«Arakil ibaiko ura neurririk gabe erabiltzen da obra hauek egiterakoan, eta Beriain mendiaren magaletan harrobiak ireki dituzte»*. Gune arkeologiko batzuen suntsiketa ere salatzen dute.

Nafarroako Gobernuaren ustez, modernitatea eta progresurako bidean beharrezkoa da Sakanako autobidea ●

Autobide honen historian zehar, eta auzi honekin zerikusia duten instituzioen artean, Sakanako Udalen Mankomunitateak garrantzi handia izan du. Aurreko legealdian, HBk bere lehendakaritza zuelarik, Mankomunitate honek argibide publikoak eskatu zituen proiektua argitara atera zen une beretik. Oinarrizkoak jotzen zituen puntu batzuen eskakizuna plazaratu zuen: hasi berria zen lurralde plangintzaren jarraipena, autobidearen zabalera mehartzea (12 metroko medianarik ez), errepide irekia izatearen beharra sare sekundariorik behar ez izateko, zenbait aldaketa trazatuan (orain pentsatu ezinak direnak obrak martxan daudelako). Mankomunitateak egin zuen ikerketa batean Gobernuak orduraro erabilitako argumentazio tekniko guztiak zalantzan jartzen ziren.

Baina egoera aldatu egin da. Hauteskundeen ondoren EAk hartu du Mankomunitatearen lehendakaritza, eta jadanik publikoki azaldu du bere autobidearen aldeko jarrera. Hala eta guztiz ere autobide honen obrak aurrera doaz.

Olatz Irizar

LAN KIDE AURREZKIAN, AURREZKI-LIBRETAREN

INTERESA ALDATU EGIN DUGU. SUPERLIBRETAREKIN

%7

Lan Kide Aurrezkiaren Superlibreta:

%7rainoko interesa.

200.000 Pta.tik aurrera.

Erabilgarritasun osoarekin

Lan Kide Aurrezkiaren Superlibreta

% 7 raino

Errezibu guztien helbideraketa inolako kosturik gabekoa.

Eta, gainera, Lan Kide Aurrezkia Euskadiko Kutxaren garantia osoarekin.

Bada, egizu aldaketa %7rainoko Libretara.

200.000 pta.ko eguneroko saldotik hasita, lehen 100.000 pta.k %0,10ean.

U.T.B.ko adibideak:

250.000 pta.rako %4,33a.
500.000 pta.rako %5,74a.
1.000.000 pta.rako %6,45a.
5.000.000 pta.rako %7,01a.

Euskadiko Kutxa

CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA

BURUHILTZEA, IRTENBIDE BAKARRA ASKORENTZAT

Buruhiltze kasuak komunikabideetan noizbehinka eskaintzen zaizkigun berriak dira. Leihotik bota, euren burua urkatu, sustantzia kaltegarriak irentsi... sistema anitz erabiltzen dituzte suizidek beren heriotzarako bidean. Gai lazgarria gehienentzat, honelako heriotzak normalak dira soziologo eta psikiatrentzat. Egunero izaten da buruhiltzeren bat Euskal Herrian, eta intituzioetan hasiak dira prebentzio proiektuak aurkezten.



Urkatze sistema da euskal nekazari munduan suizidek gehien erabiltzen dutena.

BIZITZAK suposatzen dien zama ezin jasanik beren burua hiltzen dutenen kopurua goraka doa Euskal Herrian urtero. Arrazoi ugarirengatik, eta modu desberdinetan, 400 pertsona inguruk aukeratzen dute heriotza irtenbide bakartzat.

Lurraldeka begiratuez gero, Bizkaia da, adituen ustez, Euskal Herri osoko lehena mota honetako kasuetan. 119 pertsona suizidatu ziren bertan 1990ean. Hauetatik asko 20 eta 29 urteren arteko gazteak ziren, gizon zein emakume. Leioan EHUko irakaslea den Villasana doktoreak bi urte inguru daramatza gai honi buruzko txosten bat prestatzen. *«Egia esan* —azaldu digu mediku honek—, *Bizkaiko kasuen jarraipena egiten dugu bereziki, baina honek ez du esan nahi gure txostenaren emaitzak beste herrialdeetara zabal ezin daitezkeenik. Euskal gizarte osoaren isla izan daiteke gure ikerketa».*



Villasana doktorea Euskal Jaurlaritzak aurkeztutako proiektu berezi bateko zuzendaria da. Proiektu honekin buruhilketen prebentzioa lortu nahi da, eta horretarako psikiatra zein soziologoz osaturiko talde bat sortu da. *«Gure lanetarako beharrezkoa dugu*

Suiziden bataz besteko adina 50 urtekoa da gizonezkoetan, eta emakumezkoetan 58koa ●

auzitegien laguntza. Auzitegiko medikuak dira buruhilketa guztien berri izaten dutenak, eta beraiek eskaini diezagukete beharrezkoa dugun informazioa».

Rafael Alcaraz, auzitegiko medikua da Bizkaia zein Gipuzkoan. Datuak eskatzerakoan, Bizkaiakoak bakarrik dituela esan digu. *«Beste herrialdeetan ez da inolako kontrolik egin orain arte, eta oso zaila da datu konkretuak ematea. Hala*

Suizidioak estaltzea komenigarria omen da zenbaitetan

PERTSONA batek bere burua hil duen ala ez erabakitzeko arazo larriak izaten dituzte auzitegiko medikuek. Zenduak ez badu inolako agiririk uzten oso zaila izaten da heriotzaren arrazoiak konkretatzea.

Gainera, oztopo handia izan da betidanik «estalitako suizidioak» izenarekin ezagutzen direnak. Arruntenak autoz suertatutakoak izaten dira. Aseguru etxeek ordaintzen dituzten dirutzek familiakoen isiltasuna eragiten dute, heriotza nahita izan bada askoz ere diru gutxiago jasotzen bait da.

Suizidek ere nahiago izaten dute beren familia egoera ekonomiko hobean uztea hiltzean. Honen adibide garbia dugu iaz Bizkaian izandako kasu bat. Gizon batek auto istripu bat izan zuen alboetara beste bide bana zituen zuzen batean. Zuzenean joan zen aurrez aurre zetorkion autoaren kontra. Honen gidaria, zetorkiona ikusirik, ezkerreko bidera pasatu zen, suizidaren desbideraketa eraginez. Hau baratza bateko hormaren kontra joan zen zuzenean, une berean hilez. Ondorioz, familiak zituen zorrak ordaindu ahal izan zituen emazteak.

Baina buruhiltzearen estalketa beste arrazoi batzuengatik ere izan daiteke. Ipar Euskal Herriko suiziden senideek, herriska txikietakoak gehienak, herri osoaren mesprezua jasaten zuten, euskal gizartean oso gaizki ikusia egon bait da buruhiltzea orain arte. Azken urteetan, hala ere, aldatzen joan da jarrera hori.

Hirietan suizidek batez ere altuera handitik jauzi egiten dute.

ere, krokis orokor bat egin daiteke. Hego Euskal Herrikoa, behintzat». Alcarazek argitu digunez, Hegoko lau probintzietan 100 mila biztanletatik 10ek beren burua hiltzen dute urtean, eta hauetatik % 65 gizonezkoak

Beren burua hiltzea erabakitzen dutenen % 10k besterik ez du lortzen bere nahia gauzatzea ●

izaten dira. Suiziden bataz besteko adina 50 urtekoa da gizonezkoetan, eta emakumezkoetan 58koa.

Kopuru altu honen arrazoia, estatistiken arabera, zahartzaroan pertsonek sentitzen duten bakartasuna eta arreta ezaren sentsazioan datza. *«Arazo hau dela eta, depresio handiak jasaten dituzte hirugarren adinekoek, eta horren ondorioz beren burua hiltzea erabakitzen dute»*, diosku Alcarazek.

Suizidek gehien aukeratzen duten buruhiltzeko modua altuera handitik jauzi egitea izaten da. % 30ek aukeratzen du sistema hau. Urkatzea aukeratzen dutenak % 25 dira, eta sustantzia kaltegarriak irensten dituztenak % 10. *«Tiroz, labankadaz, trenera botaz, itota eta elektrokuzioz hiltzen direnak geldi-tzen zaizkigu* —gehitu digu Alcarazek—. *Baina haueik gutxienekoak izaten dira».*

Ipar Euskal Herriko datuak hartzen badira, antzekoak dira gehienak. Bertan gehien erabiltzen den buruhiltze sistema urkatzea izan arren, adin eta sexu arloko bataz bestekoak berdintsuak dira. Ondorio horretara heldu zen behintzat Argitxu Noblia doktorea: *«1957tik 1977ra bitartean Lapurdi eta Nafarroa Behe-*



Kultura eta buruhiltze sistemen arteko lotura

BURUHILTZEA, kultura eta gizarte guztietan ezaguna den heriotzarako bide bortitza dugu. Ezagunak dira zenbait kulturatan eman izan diren talde osoen buruhiltzeak. Edota Japoniako «Hara-kiri»a. Kultura bakoitzak era desberdinean ulertzen ditu heriotza eta bizitzaren garrantzia, eta Euskal Herrian ere badira bitxikeria ugari.

Azken hamarkadetan, garapen ekonomikoarekin batera, buruhiltze sistema berriak azaldu dira Euskal Herrian. Orain hasi dira suizidak euren burua tren azpira botatzen, alde batera utziz betidanik erabili izan diren altuerako jauzia eta urkaketa.

Hiriko buruhiltzaileek jauzia eta sustantzia kaltegarrien irenstea erabiltzen dituzte kasu gehienetan, eta nekazari giroko herrietan, aldiz, urkatzea eta tiro egitea izaten dira erabilienak.

Zenbait herri konkretutan ematen den buruhiltze tasa altua ere aipatzekoa da. Eibar eta Oñatiko herri gipuzkoarrak, adibidez, ezagunak dira beren bataz besteko suiziden kopuruagatik. Soziologoek honi ematen dioten azalpena kulturala izaten da. Ohitura kontua litzateke, urteen poderioz arazo larriei ikusten zaion irteera bakarra bilakatuz.

Psikiatrek, aldiz, azalpen guztiz zientifikoa egiten dute. Belaunaldiz belaunaldi genetikoki igortzen joan diren ezaugarri depresiboak edota psikopatologikoak lirateke egoera honen arrazoiak. Teoria honi esker azaldu daitezke zenbait kasu bitxi. Bizkaian, adibidez, familia bereko sei lagunek hil zuten euren burua.

Soziologo zein psikiatra guztiak ados azaltzen dira gizonezkoek emakumezkoek baino suizidio sistema bortitzagoak erabiltzen dituztela onartzerakoan. Hau ere heziketa eta gizarteko arrazoien eraginez.

Herri garatu guztietan gertatzen den bezala, Euskal Herrian ere adineko pertsonak dira gehienbat suizidioa irtenbide bezala erabiltzen dutenak. Zaharren egoitzetan bizitzen, edota familiaren arreta galtzear ikusten dutelarik, depresioak izaten dituzte, eta horien ondorioz beren burua hiltzen dute.

Autoko gas jarioa aprobetxatuz itotzen direnen kopurua goraka joan da azken aldian.

rean izan ziren buruhilketa guztien txosten bat egin nuen. 450 ziren guztira».

Gaur egungo datu zehatzik ez dago Iparraldean. Noblia doktorea izan da orain arte mota honetako tesia prestatu duen bakarra. *«Uste dut honi buruzko zerbait egiteko asmoa badela, baina datuak ez dira gehiegi aldatu azken bi hamarkadetan».*

Buruhiltzea arazo soziala dela diote mediku guzti hauek, eta bere prebentziorako psikiatriaren garrantzia handia dela. *«Beren burua hiltzea erabakitzen dutenen % 10ek besterik ez du lortzen bere nahia, eta gainontzeko guztiek arazo larriak izaten dituzte ondoren zuzpertzeko. Horrelako kasuetan garrantzi handia hartzen dute psikiatrek»*, gogoratu digu Alcaraz doktoreak.



«Suizidek gehien aukeratzen duten buruhiltzeko modua altuera handitik jauzi egitea izaten da» ●

RAFAEL ALCARAZ

Lan honetan aritzen da Fernando Ramírez, Gasteizeko Santiago Ospitaleko psikiatria saileko zuzendaria. *«Araban azken urteotan beren burua hiltzen saiatu direnen kasuak hartu eta azterketa psikiatriko bat egin dugu* —aipatu digu Ramírezek—. *Eta emaitzen arabera esan daiteke suizidek arazo psikopatologikoak izaten dituztela».* Depresio gogorretako joera dutenen artean eta psikopaten artean izaten da buruhiltze kopuru altuena.

«Hiltzea lortu ez dutenei laguntzea litzateke gure lanik funtsezkoena. Jende askok pilulak edo antzekoak neurrigabean irensten ditu. Ez hiltzeko, ingurukoen arreta lortzeko baizik. Sistema hau aukeratzen dutenen gehiengoa emakumezkoek osatzen dute. Benetan hiltzea nahiko balute beste sistemaren bat aukeratuko lukete. Oso zaila da pilulak irensteagatik hiltzea», adierazi digu psikiatra honek. Bere ustez, suizidioak gizarte eta kultura guztietan ezagutu izan badira ere, azken bi hamarkadetan hasi dira azaltzen arreta lortzeko suizidio saiakeren kasuak, *«eta hori da guk ekidin nahi duguna. Suizida gehienek azaltzen dute beren heriotz nahia ekintza konkretuetara pasatu aurretik, eta gure lana hori garaiz ikustea da».* Hala eta guztiz ere, buruhiltzeak beti izango direla diote aditu guztiek.

Amagoia Iban

SEASKA HAZ DADIN, SENPERERA



Urtero Euskal Herri osoko euskaldunak biltzen dira Senperen.

Aurtengo Herri Urratseko lema nagusia «Euskaraz bizi Ikastola hazi» izango da. Euskaldun asko bilduko dira berriro ere Senpereko aintziraren inguruan maiatzaren 10ean. Egun hau heltzear, Iparraldeko ikastolak egoera ekonomiko larrian aurkitzen dira.

SEASKAKO kide guztiek erakunde honek gaur egun bizi duen kinka larria adierazi dute komunikabideetan azken aldian. Orain dela hamaika urte Mitterrandek Estatu frantziarreko botere nagusia hartu zuelarik itxaropentsu ziren Seaskan, ikastolek diru laguntzak lortzeko ahalmen gehiago izango zituztelakoan. Baina gauzak ez dira horrela gertatu, eta dirurik lortzeko inoiz baino arazo gehiago dituzte talde honetako partaideek. Ho-

rrela, eta irakasleek konbenioa negoziatzeko momentua iristen delarik, kezka nagusitu da Seaskakoen artean etorkizunari buruz.

Ipar Euskal Herriko ikastolak zein egoeratan dauden ezagutu ahal izateko Donibane Lohizuneko ikastolako gurasoengana jo dugu. *«Egia da gure egoera larria dela, baina aurtengo Herri Urrats sekula baino koloretsuagoa nahi dugu. Guraso guztiek parte hartuko dute aurtengoan ere, lan eginez. Eta dirurik ezean, kemena dugu, eta ikastolak aurrera eramateko prest gaude»*, dio Maitek.



Mahaiak jarriko dira jendeak dirua eman ahal izan dezan. Mixel Cazaubon (behean) irakaslea eta Herri Urratseko laguntzailea.

Bigarren mailan gorakada

Datorren maiatzaren 10ean bilduko den dirua Xalbador Ikastegia kudeatzeko izanen da. Hain zuzen ere, 196 ikasle eta 32 irakasle daude bertan. Estatu frantziarrak ez du inongo laguntzarik ematen bigarren mailako ikastegi honetarako. Bigarren mailako irakaskuntza 11 urtez gora diren haurrentzat egina da, lizeoa barne, eta gaur egun maila horri dagokion ikastoki euskaldun bat baizik ez da Iparralde guztian, Kanbokoa. Ekonomikoki, beraz, zama guztia Seaskaren gain erortzen da. *«Bigarren mailara heltzen diren haurren kopuruak urtetik urtera goraka egiten duela ikustean asko pozten gara, horrek gure irakaskuntza sistemaren osasun ona erakusten bait digu* —dio ikastola honetako irakaslea den Guillermo Etxeberriak—, *baina lekua dela eta mugatuak gaude, eta eraikuntza berriak beharrezkoak ditugu».*

Laborategia, liburutegia

ELE aldizkaria

Hizkuntzalaritza, hizkuntzaren didaktika eta soziolinguistika aldizkaria

HARPIDETZA TXARTELA:

Izen deiturak: .....

Helbidea: .....

Herria: ..... Posta-kodea: ..... Tfnoa.: .....

Banku edo Aurrezki kutxa: .....

Kontu-zenbakia: ..... Sukurtsala: .....

Kontuaren jabea: .....

Bizkaiko AEK (ELE), Diputazio k. 3-1. 48009 Bilbo. Tfnoa.: (94) 423 15 52 - Fax: (94) 424 80 12

Xalbador Ikastegian obra anitz jarri dira martxan, baina nahikoa diru ez daukate.

Seaska solaskiderik gabe

AZKEN denbora honetan ipar aldean gaindi ibil dena ohartu bide da nonnahi bide bazterretan afitxak jarriak izan direla. «Seaska Negoziaketa» dakartenak. Baitzuen zenbait urte orain, biga gutienetik, ipar aldeko ikastolen elkarteak ez zuela bere burua modu horretan aiparazi, on da entseia gaitezen hemendik Seaska berriz ere zerk horretaratzen duen jakin araztea.

Ipar aldeko ikastolek, luzaz eta luzaz Hezkuntzako Ministerioaren ezagutzaren eta diru laguntzaren galdez egon ondoan, duela bi urte harekin hitzarmen bat izenpetu zuten, honen arabera Estatuak hirurogei lehen mailako irakasleren diru ordainketa bere gain hartu behar baitzuen, eta hiru urteren barne irakasle horiek oposizioen bidez osoki Hezkuntzako irakasleriaren barnean sar arazi ere.

Bestalde duela bi urte Seaskak onartarazi ahal



BEÑAT OIHARTZABAL

Seaskako partaidea

izan ez zuena —erran nahi baitu bigarren mailako ikastokiko irakasleen hitzarmenean sar eraztea— arras beharrezkoa bihurtu da orain, eta gero eta gehiago, goitituz baitoa ikastoletako haurren kopurua (1990ean: 842 ikasle, 1992ean: 1.066; % 26ko handitzea, beraz, eskolaurreko ikastolak kontuan hartu gabe).

Egoera larrian dago elkartea gaur egun. Aurtengo kontuen arabera, laguntza publikoak kontuan harturik, 8.800.000 libera (17.600.000 pezeta) beharko dute aurkitu seaskakideek ikastolen ibil arazteko: ezin jasanezko diru zama da elkarteatarentzat.

Frantzian Ministerioen heldu den urteko kontuak maiatzean finkatuko baitira, badu lau hilabete jadanik Seaska Ministerioari gutun igortzen hasia zaiola. Orain artino ez du ihardespenik batere izan.

Bitartean, berriz ere, ezin bizian aurkitzen da elkartea. Duela bi urte kalapita askoren ondorioz izenpetua izan zen delako hitzarmena. Aurten ere, zorigaitzez bide beretik ibili beharrean kausitzen da Seaska. Noiz arte?

P.S.: Ez negoke hemen, ipar aldeko ikastolentzat eta bereziki bigarren mailakoarentzat hainbeste lan erabili duen Gexan Lantziri adiskideaz hitz bat erran gabe. Eta esperantza baitut den tokian ere noizpait lerro hauek irakurtuko dituela, jakin beza gogoan dugula haren lagun guziek, eta doakiola agur goxo batekin batean ene atxekimenduaren lekukotasuna.

eta gela berri batzuk eraiki zituzten joan den udan Xalbador Ikastegian, 130 guraso eta laguntzaile ingururen lanari esker. *«Baina ikasleen kopurua mugatzera behartuak izango gara laster. 300eko kopurua gainditu arte Kanbo izango da dugun bigarren mailako lizeo bakarra* —dio Mixel Cazaubonek, jaialdi honen altolatzaileetako batek—, *hortik landa beste leku batean pentsatu beharko dugu, bigarren lizeo bat irekitzeko. Seguraz ere kostaldean»*. Herri Urrats antolatzeko, urtetik urtera gero eta laguntza gehiago iristen zaiela azpimarratu digu Mixelek: *«hautetsiek ere berrietako materiala prestatzen digute, antolaketa lanak erraztuz»*.

Egitarau luzea

Pasatu den urtean bezala, larunbatetik hasiko da festa Saran. Kontzertu bat antolatu da, Hertzainak taldea eta Ruper Ordorikarekin alde batetik eta, bestetik, Sarako zenbait musika eta dantza talderekin. Ondoren, bertan lo egin nahi luketenentzat, akanpalekua izango da aintzira sarreran.

Biharamunean aintziran itzulia ematen hasi ahal izateko, dena prest izango da. Lehenik, diru laguntza uzteko prestatuak izango diren mahaietatik pasatu

Aurten biltzen den dirua Xalbador Ikastegia kudeatzeko izanen da: 192 ikasle eta 32 irakasle ditu ●

Kanboko Lizeoko ikasleak dira bigarren maila euskaraz egin dezaketen bakarrak.

beharko da, eta bidean lau festagune gurutzatu ahal izango dira. Jende ezaguna aipatzekotan, Pantxoa Bergara, Ihidoi eta Xalbador, Niko Etxart, Amaia Zubiria... Bestalde, euskal kirolari ere tartea egingo zaio aurten. Iñaki Perurena bertan egongo da, Arrospide aizkolariarekin, famatuenak aipatu asmoz. Trikitilariak, bertsolariak, mozorroak, txarangak... Jaialdian laguntzaile gisa arituko den

Herri kirolak, kantaldiak eta festa Senperen izango dira aurten ere.

Patxiren esanetan, *«herri honek bere hizkuntza salbatu nahi badu benetan, indarrak aurkituko ditu»*. Seaskarena, Mixel Cazaubonek dioenez, Iparraldean euskaraz erakusteko sistema baliagarri bakarra da.

Ixabel Etxeberria

Susa

LITERATUR ALDIZKARIA

28 zenbakia

LIBURUDENDA ETA KIOSKOETAN SALGAI
700 PEZETA / 65 LIBERA

separata:

BEGIEN BIZKAR

(hamar poema)

Joxean Muñoz

SUSA
Industrialdea 1-2. Lasarte-Oria
☎ (943) 37 07 38

«Nuntzioari baimena ematea, preso politikoa nintzela onartzea da»



Pantxoa Garat Anai Arteako partaidea dugu, errefuxiatuen kontrako epaiketetan, askotan, lekukoa eta duela aste gutxi presondegitik atera zen, bertan bi hilebete egon eta gero, errefuxiatu bat etxean hartzeagatik. Aspalditik errefuxiatuen aterbetzearen alde lan egin duen hau Ezpeletako erretore da eta gaur egun, apaiz lanetan ari da.

ARGIA. *Zerk eraman zintuen errefuxiatu bat babestera?*

P. GARAT. Hori oso istorio luzea da. Ia 10 urte eman ditut Euskal Herritik kanpo, 4 urte Erroman ikasten eta 5 irakasle bezala

Akizen, Apaiztegi Handian. 1977a arte ez nintzen Euskal Herrira itzuli. Armendaritzen errefuxiatu nafarrekin hasi ginen lanean kooperatiba bat sortu bait genuen 1983an. Orduan ez zeukaten paperik...

A. *Eta errefuxiatuak hartzen zenituen etxean, nahiz eta paperik ez izan.*

P.G. Bai. Orduan «Errefuxiatu bat, etxe bat» kanpaina hasi zen. Paperik ez izan arren, eta poliziak jakin paperik gabe zeundela eta errefuxiatuekin gure lanaren berri izan arren, Armendaritzen errefuxiatu familia batekin bizi izan nintzen. Garai haietan ere, GALeko komando bat gure ondotik ibili ziren... beraz, aspalditik fitxatuta nengoen.

A. *Orain arte ez zaituzte inoiz atxilotu?*

P.G. Ez, 1981-1986 artean, errefuxiatuek paperak zituztelako beti. Behin, elizara etorri ziren nere bila, jendeak ikusteko gisan.

A. *Aldi honetan, poliziak etxera etorri zirelarik, bortitzak izan ziren?*

P.G. Bai. Hemen beste kasuetan bezala, atea hautsi, lurrera bota zuten eta hormaren kontra jarri ninduten, horma eta pistolaren artean. Ohetik altxa bezain laster, han ziren mamu beltzak.

A. *Zein izan da gogorrena? komisaldegia edo presondegia?*

P.G. Komisaldegian PAFeko bulegoetan egon nintzen, asteartetik ostegun eguerdira arte, eta hiru galdeketa jasan nituen... Anai Artea elkarteari buruzko galderak, zein zen gure lana, zertan datzan... honetaz bi galdeketa egin zidaten, eta gauean, lo nintzela, bi polizia agertu ziren nere pentsamoldeaz galderak egiten. Ni mando zaharra bezain mutu egon nintzen.



«Garai haietan ere, GALeko komando bat gure ondotik ibili zen... aspalditik nengoen fitxatuta» ●

A. *Eta presondegiko espe-rientzia?*

P.G. Han presondegian, 'terrorista' lanjerosoak gara. Presondegiko sistema nortasuna deusezteko egina dago. Han ez duzu ekimenik, zure nortasuna, emeki-emeki jausten dute, han zenbaki bat besterik ez zara. Aske utzi naute baina ez dugu ahaztu behar besteak han daudela.

A. *Beste presoekin izandako harremanak nolakoak izan dira?*

P.G. Presondegian oso zaila izan da harremana. Ez zuten jakin ere apaiz nintzela, pertsona batek besterik

«PAFeko bulegoetan hiru galdeketa jasan nituen. Anai Arteari buruzko bi eta beste bat, gauez, nire pentsamoldeari buruzkoa».



NORTASUN AGIRIA

Hazparnen jaio zen 1944ean ● Presondegian egon zela 500 gutun jaso zituen ● Mendian ibiltzea eta espeleologia ditu gustoko ● Fisika ikastea gustatuko litzaioke eta matematikak latina baino gehiago gustatzen zaizkio ● Norabait bidaiatzekotan Nikaraguara joatea gustatuko litzaioke bertako apaizen lan modua ezagutzeko



«Ez dut gizakia menperatzen duen teologia bat nahi. Teologiak gizakia askatu behar du».

ez zekien. Presondegian % 80ak beltzak dira, trafiko banda osoak daude baina euskaldunei izugarrizko errespetoa digute.

A. *Dena den, Elizako hierarkiak ez zaitu bazterrean utzi.*

P.G. Nuntzioa etorri zen bisita ofizialean, Barne Ministeritzako baimenarekin eta bestalde, Baionako Apezpikua ere etorri zitzaidan. Ez gaituzte ofizialki preso politikotzat hartu nahi baina Barne Ministeritzak Nuntzioari baimena eman zionean, nolabait, preso politikoa nintzela onartu zuen.

A. *Eta epailearekin?*

P.G. Ea biolentoen laguna nintzen galdetu zidan. Frantzian, errepresio mailan, ez dute borroka honetan Euskal Herriko inor baztertzen. Orain arte langile, gazte, irakasleak... atxilotu dituzte eta orain elizgizon bat hartu dute. Honek erran nahi du borroka honetan eskualde eta klase guztietako pertsonak daudela eta ez direla deusen beldur.

«Frantzian, errepresio mailan ez dute borroka honetako inor baztertzen» ●

A. *Euskal Herritik kanpo izan duzu sostengu edo laguntzarik?*

P.G. Bai, Frantzia osotik... baina hau komunikabide eta informazioa hedatzearen ondorioa izan da. Anitzek esan zuten ez zirela elizara joaten baina aterbetzearekin ados zeudela. Honek frogatzen du badaudela hainbat gizon eta emazte, uste baino gehiago, borroka isilki eramaten dutenak eta, beraz, gizakiaren eskubideen alde daudenak.

A. *Nola ikusten duzu prentsak erakutsi duen interesa?*

P.G. Nere ustez apaiza nintzelako hedatu zen.

A. *Zein harrera izan duzu herrian?*

P.G. Batzuek apaiza falta





«Badaude hainbat gizon eta emazte, uste baino gehiago, borroka isilki eramaten dutenak, eta beraz, gizakiaren eskubideen alde daudenak».

zuten. Beste batzuk Euskal Herrian dauden kezkez ohartu dira. Beste batzuek burua apaltzen zuten, ezkutatzen ziren eta nik badakit nere kontra mintzatu direla.

A. *Nola ikusten duzu Euskal Herrian Elizaren garapena?*

P.G. Elizak, oraindik ere badu garatzerik eta asko gainera. Dena den, garapen hau betidanik militanteen esku egon da. Kristoren militanteak izan dira garapen hori aurrera eraman dutenak. Herri Ekintzak, adibidez, lantegietan eta nekazal munduan egiten dituen lanak, sindikatu bezala ez ezik, eliza bultzarazten du.

A. *Aplikagarria al da Euskal Herrian Askapenerako Teologia bezalako bat?*

P.G. Ez dut gizakia menperatzen duen teologia bat nahi. Jainkoaz mintzo bagara, gizakiaz mintzo ari gara eta teologia batek gizakia askatu behar du. Ikusi behar dugu Euskal Herriak zein behar dituen, herriak zer bizi duen, eta ikusi beharko da Elizak zein laguntza eskain dezakeen. Guk nekazariekin lan egiten dugu, nekazaritzak gainditzeko zenbait arazo bait ditu. Garrantzitsua da Elizak kultur mailan herri bat errespetatzen duen edo ez.

A. *Euskal Herriko arazoen inguruan desberdintasun handiak agertzen dituzte Hegoalde eta Iparraldeko apaizek?*

P.G. Lan egiteko modu berberak ditugu. Hala eta guztiz ere, badago apaiz batzuk bere elizako liturgietan besterik geratzen ez direnak. Gure berezitasuna herriari begiratzea izan da eta da egun ere. Ondotik herria ikertzea eta egungo kezkei erantzutea.

A. *Euskal historian Elizak oso paper garrantzitsua izan du, egun botere faktiko bat dela uste duzu?*

P.G. Ez. Hala balitz eta Elizako arduradunek botere hori balute Hegoaldeko Elizarekin hartu emanak izango lituzkete, eta ez da horrela. Ez dut uste boterea daukanik.

«Espainian izugarrizko kanpaina hasi dute apaizen kontra eta, Treviñoren atxiloketaren bitartez, Eliza ukitu nahi dute» ●



«Eliza herriaren zerbitzari izan behar da. Herriaren zerbitzari sartzen bada indarra ukanen du».

A. *Botere handiagoa izan beharko luke?*

P.G. Eliza herriaren zerbitzari izan beharko litzateke. Eliza herriaren zerbitzuan sartzen bada, orduan indarra ukanen du.

A. *Treviño ere atxilotua izan da pertsona batzuk aterbetzeagatik...*

P.G. Baita torturatua ere. Nik beste tortura mota bat jasan dut, tortura psikologikoa. Espainian izugarrizko kanpaina hasi da apaizen kontra, eta Treviñoren bitartez Eliza ukitu nahi dute. Madrilgo boterea eta euskal izaeraren artean izugarrizko borroka eta eztabaida dagoela frogatu da.

A. *Zein da zure iritzia Txikierdiren estradizioari buruz?*

P.G. Baionan iragan zen Txikierdiren kontrako auzian lekukoa izan nintzen eta azken erabaki horrek erakusten du politika frantsesa Feliperen mutila bilakatu dela.

A. *Nola ikusten duzu Iparraldearen etorkizuna, eta Euskal Herri osoarena?*

P.G. Etorkizuna... aspaldi denek esaten dutena, eta Ezpeletan ere erantzuten dutena: negoziazioa. Negoziatu behar da, mahai baten inguruan jarri behar gara. Gu arrastaka edo belauniko nahi gaituzte. Ez da negoziatu behar hilerrietan edota presondegien ateetan. Gu badugu gure nortasuna.

Bestetik, Iparraldean hain gutxi gara eta hain zatituak... Indar guztiok bat egin behar dugu, hor badugu anitz lan egiteko, inor baztertu gabe. Hemengo borroka kultur mailakoa da, hezkuntza mailakoa...

«Kristoren militanteak izan dira Elizaren garapena aurrera eraman dutenak» ●

A. *Erlijioa edota eliza al da euskaldun guztion batasun lekua?*

P.G. Gure arazoa handia da. Hemen bi herri daude, biarnotarrak eta euskaldunak eta gotzai berdina dugu. Guk aspaldi proposatu genuen herri bakoitzak bere gotzaia izatea, herri bakoitzaren kultura errespetatuz.

Myriam Gartzia
Ixabel Etxeberria

EKO ASTEASU
Keelavite poligonoa z/g
ASTEASU

EKO VILLALBA
San Juan Kalea, 9
EIBAR

EKO TOLOSA
Zumalakarregi kalea, 4
TOLOSA

AUTOSERVICIO GORA-BERA
Agerretxe Ibilbidea
DEBA

EKO EUROMAR
Nafarroa ibilbidea, 37
ZARAUTZ

SUPER ANDONAEGUI; C.B.
Andonaegi kalea, 10
SAN PEDRO – DONOSTIA

MERKEK IGLESIAS
Azkuene Kalea, 12
TRINTXERPE

SAN JUAN BAUTISTA KOOPERATIBA
Villas auzoa
HERNANI

EKO IRUN
Blas de Lezo, 22
IRUN

EKO LEZO
Avda. Jaizkibel, 1
LEZO

EKONOMATO ORBEGOZO
C/ Eliz-Kalea, 1
ZUMARRAGA

SUPER RENTERIA
Vicente Elicegi kalea, 5
ERRENTERIA

EKO BERAUN
Galtzaraborda Etorbidea, z/g
BERAUN – ERRENTERIA

EKO ERREKONDO C.B.
Zigordia kalea, 7
ZARAUTZ

EKO LEGAZPIA
Urola s/n
LEGAZPIA

SUPERMERCADO SOKOA, C.B.
Sokoa Merkatalgunea, 7
Hirigintza (ARABARKA jatetxearen atzean)
HONDARRIBIA

BETI MERKEK
Loiola kalea, 12
DONOSTIA

EKO ALTZA
Larratxo Ibilbidea, 96 zbk.
ALTZA



EKO VILLALBA
Torres Urquizu kalea, 13
EIBAR

EKO AIETE
Etxaidi Saila
AIETE – DONOSTIA

BASTIDA
Erdiko kalea, 32
MUTRIKU

ZURE ETXE ONDOAN

EKO

SUPER IZTIETA
San Sebastián kalea, 16
ERRENTERIA

Euskararen mugak irekitzeko premia

«EUSKARAZ *bizi eta funtzionatzeko asmoz zenbait udalek hartutako erabakiak ez du gaztelera baztertuko denik esan nahi, euskararen erabilerari lehentasuna eman eta bultzatu arren»*. Erabaki honen bidez, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak arrazoi eman dio Beasaingo Udalak bere garaian onetsiriko akordioari, non udal elebakarrekiko elkartasunezko jarrera hartzen bait zen.

Aspaldi honetan, euskararen sokatira sozialean, testuinguru legalaren aldaketa beharrezkotzat jo dutenek badute pozteko aukerarik oraingoan, udal elebakarren euskara hutsezko funtzionamendua «pekatu mortala» izatetik legez zuzena dela adierazten bait du erabaki honek.

HIRU urtetan zehar «errekurtsoka eta ate joka» aritu ostean erantzun bakarra heldu da Madriletik: «Erdaldunen eskubideak baztertuak gerta daitezke». Udal elebakarrek martxan dituzten plangintzak garatzeko orduan babes juridiko oro errotik moztu da. Auzitegi Konstituzionalak atzera bota ditu errekurtsoak gobernadore zibilen eskakizunak kontuan hartuz eta, 1982an, EAEko alderdi politiko guztien adostasunez onartua izan zen Euskararen Legearen 8.3 artikulua baliogabetuz.

«Udalaren gizarte hizkuntzazko egoera dela eta, herritarren eskubideen kaltetango gerta ez dadinean, herri agintariek, toki ardularitzaren alorrean, euskara bakarrik erabili ahal izango dute» dioen artikuluari *«porque no exista a diferencia del castellano el deber de conocimiento del euskara en zona alguna del territorio del Estado, y entiende que de la aplicación de tal precepto se puede derivar tal consecuencia»* inposatu zaio orain bitartean.

MUNDUKO soziolinguista ospetsuenak bat datozen lurraldetasunezko erizpidearen aplikazioari jarraitu diote udal elebakarrek. Herri hauetako biztanlegoa bere osotasunean euskaldun izaki, «kanpotik datorrela arazoa» aldarrikatu eta legeriak markatzen duena sozialki betetzea errefusatu dute, euskararen «insumisoak» bihurtu direla.

Gauzak honela, Justizia Auzitegi Nagusia bat etorri da Beasaingo Uda-

Euskararen aldeko legeria berri baten beharra uzten du agerian epai honek ●

T E R M I N O L O G I A

Arnasa. *1. Arnasten den airea. / 2. Izpirituari eta beronen eraginari deitzen zaio: «zatozkida goi-arnas, eizu nerekin lan; erri baten arnasa, mamitu dezadan» (Orixe).*

Maurizioren izpiritu-arnasa urtetan gozatu duen txistua nobiorik gabe geratu berri da. Maurizio baztandarrak ez du, ordea, arnasik gabe utzi txistua. Txikitan, aitaren eskutik, XVII mendetik zetorren tradizioa arnas batean bildu eta, Orixeren hitzetan, «erri baten arnasa, mamitu dezadan» aginduari bizitza osoan jarraitu zitzaion txistua. Maurizioren aire beretik jotzen zuen txistu honek bere baitan gordetzen ditu gure izaeraren zutabe sendoak diren sentimendua eta herri gogoa. Maurizioren arnas beroa gordetzen du, gure historiaren erroetatik edaten duen arnas beroa. Lehengo doinu eta dantza zaharrak akitu ez daitezen kantari jartzen dena.

Bazko astelehenean topo egin zuten Saran, aurten ere, idazleek eta beren irakurleek. Aurtengo edizioan, Ormodia utzi eta Biltoki berrian erosi zituzten zaleek euren idazle gogokoen lan berriak. Giro alai eta koloretsuaz, jende asko bildu zen berritasunak ezagutzeko ezinbestekoa bilakatzen den Biltzarrean. Aurtengo IX edizioan, Pamiela argitaldaria izan zen Hego Euskal Herriko ordezkari bakarra. Ea heldu den urtean Hegoaldekoen partaidetasuna ugariagoa izaten den!

larekin. Beasaingoak udal elebakarrak besarkatzen ditu. Ordea, elebakarrek legea dute muga. Hiruko erregela sinple batez, Auzitegiaren epaiak, arazoaren koska utzi du agerian: euskararen aldeko legeria berri baten premia, eta premia honi erantzungo dion apostu politikoaren beharra.

Euskararen Legea onartu eta Amezketa, Lizartza, Zeanuri, Ituren... bezalako kasuen aurrean entzungor aritu diren alderdiek badute zer pentsaturik, beraz, auzi honen aurrean. Euskararen aurkako «trumoi politikoaren» erdian bestalde, aterrune bilakatu den berri honek badio besterik: ez dela halabeharrez udal elebakar izan behar, Beasain kasu, legeak euskarari ipintzen dizkion mugei, bakoitzak bere mailan, aurre egiteko.

J.J. Petrikorena

TXINDOKI AURREAN DUDALARIK

Ihardun kateatuak

GARAI batean, hogei urte demagun gure amak ez baleki, oso lotuta ikusten nuen Euskalerriaren egoera idazle europear batek bere bi liburuetan kontatzen zuenarekin. Lehen liburuan isladatzen zen, nonbait, egoera fisiko/pertsonala eta bigarren liburuan berriz egoera morala eta herri oso batena, politikoa eta soziala. Orain betetzen dira berrogeitamar urte idazle hori hil zenetik eta bere izena Robert Musil da, Austrian jaio eta Suizan hil zena. Lehen liburuaren izena «Torless gaztearen elorrioak» da eta bigarrenarena «Tasunik gabeko gizona».



JOXE MARI ITURRALDE

GARAI hartako kontuak dira baina badute zer ikusirik gaur egungoekin, dudarik gabe. Hemen idazle bat izan dugu oso lotu daitekeena, ene ustez, Robert Musil-en obrek adierazten dutenarekin eta baita Musil berarekin ere. Eta ez naiz ari erizpide literarioak edota estilistikoak azaldu nahiez, egoera historiko baten aurrean eduki daitekeen jarrera pertsonalaz baizik. Ondorioei begiratuz nahi eta ezinezko ahaleginetaz ari naiz (Torless gaztearen antzera) eta beraz, beste zenbaitzuen aurrean, «tasunik gabeko» izate hortaz (Ulrich haren pare). Kakania deitu zion nobela horretan Robert Musilek goitik behera hondoratzen ari zen austro-hungariar inperioari eta, jakina, ezer gutxi egin zezakeen batere «tasunik gabeko» gizonak, Ulrich horrek, bertan beherako jauste horri aurre egitearren.

AITAREN etxea defenditzen saiatu zen, garai batean, Aresti idazlea. Gaur egun ez dago erraza jakiten ezer askotarako izan ote zen bere ahalegin hori. Honetan ari naizela jakin dut Giuseppe Fichera gizonaren berri. Berak ere bere etxea nahi zuen defenditu Etna sumendiko labaren oldartzearen aurka, Siziliako Zafferana Etnea herriskan. Berea zen sumenditik gertuen zegoen etxea, herriskatik aparte samar. Etxe aurrean mahaitxo bat utzi zuen dotore prestaturik, ogi eta ardoaz, Etnaren ohoretan. Eta paretan idatzi bat egin zuen Gobernuari eskerrak ematen hain ongi gobernatzen zutelako herria. Handik gutxira dena geratu zen laba azpian hondoraturik. Denborak esan beharko du nahi eta ezinezko ahaleginetan aritu zen Giuseppe edota «tasunik gabeko» gizona suertatu zitzaigun.

Dantza garaikideko IX jaialdia, laster Gipuzkoan zehar

Maiatza Dantzan, abangoardia atarian

Maiatza Dantzanek duen helburuetariko bat dantzarako antzoki egokiak bultzatzea da.(Argazkia: Marc Van Appelghem)

Donostia, Azkoitia eta Irun dira maiatzeko Dantza Garaikidearen IX Ihardunaldien topaguneak. Hurbilduko direnen artean, Ismael Ivo, Nederlands Dans Theatre-2 eta Ballet du Grand Théatre de Genève taldeak izango dira, gaur egungo Europako estilo desberdinen lekuko. Bertan, dantzaren kontzepzio berriak bilduko dira.

DANTZA garaikidearen edizio berriaren atarian, Europako estilo desberdinén topalekua da Maiatza Dantzan ekitaldia. Orain arte, eskena egokien faltan, ihardunaldiak Donostian kokatu badira ere, aurtengo edizioa Gipuzkoako beste antzoki batzuetara ere zabaldu da, Azkoitiko Baztartxo antzokira eta Irungo Amaia kultur aretora, hain zuzen.

Gipuzkoako Foru Aldundiak babesten dituen ihardunaldi hauetan, Lide Arana bertako Kultura eta Turismo Saileko arduradunak azaltzen digunez, «*gure asmoa, batetik, dantza garaikidea ezagutaraztea da, gazte jendearengana, batez ere, hurbildu, eta bestetik, momentu honetan Europan zehar dauden estilo eta joera desberdinen halako erakustoki txiki bat ere eskaini nahi izan dugu, era berean, atzerriko taldeetan dauden euskal dantzariak ikusteko aukera eskainiz*».

Antzokiak eta zaletasuna

Urtean zehar zirkuitu egonkorrik ez badago ere, Maiatza Dantzanek duen helburuetariko bat dantzarako antzoki egokiak, neurri aldetik batez ere, bultzatzea da, hauetan egitarauaren emanaldiren bat antolatuz. Honi jarraiki, beraz, aurten Azkoitia eta Irunen izango diren bezala, hurrengo urterako Arrasaten konpontzen ari diren beste antzoki batean ere izatea nahi dute. Lide Aranak gehitzen digunez, «*antzoki egokiak dauden neurrian, zirkuitu*

egonkorra ere sortu ahal izango da, eta gure helburua urte osoan zehar programaketa bat egotea

«Europan zehar dauden estiloen erakusleiho txikia eskaini nahi izan dugu» ●

LIDE ARANA

izango litzateke, Gipuzkoa osoko antzoki desberdinetan, antzerkiarekin egiten den bezala. Hilean behin, adibidez, emanaldiren bat eskaini, eta agian, orduan, Maiatza Dantzan egin ala ez planteatu behar litzateke, baina oraingoz besterik ez dagoenez guk jarraitzen dugu jaialdi hau mantentzen».

Helburu hori lortzeko antzoki eta agertoki egokiak behar dira, eta zaletasuna. Aurreko edizioei erreparatuz, zaletasuna gazte jendearen artean ematen da, batez ere.

Aurtengo IX ihardunaldi hauen egitarauari dagokionez, saio guztiak arratsaldeko 8etan hasiko dira, eta honako talde hauek parte hartuko dute: Donostiako Victoria Eugenia antzokian, maiatzaren 16 eta 17an Ismael Ivo-k, 23 eta 24an Nederlands Dans Theatre-2 taldeak, eta 29 eta 30ean Ballet du Grand Théatre de Genève-k. Donostiako Artelekun, bestalde, maiatzaren 18an arratsaldeko 4etan, bideo dantza emanaldiak izango dira Bideo Astearen barruan, eta arratsaldeko 7etan Bodyes-Parade instalazioaren inaugurazioa izango da, dantza emanaldi batez.

Ana Ramiro, dantzaria:

«Dantza garaikidearen eskola beharrezkoa da»

ARGIA. *Maiatza Dantzan bezalako ekitaldi batek nolako proiekzioa dauka bertako dantza garaikidearen konpainietan?*

ANA RAMIRO. Ezin daiteke esan gure artean dantza garaikidearen talde egonkorrik dagoenik. Dantzariak badaude, lan egiten da baina halako talde mailako egonkortasunik ez dago. Maiatza Dantzanen inguruan halako giroa sortzen da, eta batez ere, kanpokoak ikusteko aukera izaten da. Hori da alderik interesgarrienetarikoa. Bestalde, Maiatza Dantzani esker, dantza garaikidea ezagunagoa dela esango nuke nik, bertako dantzarien artean batez ere, eta baita zaletuen artean ere. Gainera, ia aukera bakarra izaten da dantza garaikidea ikusi ahal izateko, urte osoan zehar ez bait da honelako beste jaialdirik izaten.

A. *Nolako azpiegitura sortu behar litzateke profesionaldu nahi duten bertako dantzariak kanpora joan ez daitezen?*

A.R. Lehen lehenik, eskola moduko bat beharrezkoa litzateke. Irakasle onak behar lirateke eta klase iraunkorrak ere bai, dantzariak modalitate honetara erakarri eta zaletzeko. Honek beste aukera batzuk eskainiko lituzke dantza garaikidean aritzeko, irakasle onak hemen gelditu, eta honekin batera antzeztokia gehiago ere behar lirateke. Nik uste dut erakunde publikoek bultzatuta, honelako ekimen bat aurrera aterako litzatekeela.

A. *Zein korronteren barruan koka daiteke hemen egiten den dantza?*

A.R. Hemen egiten dena norbere gustoaren araberakoa izaten da. Ezin esan daiteke estilo jakin baten araberako dantza egiten denik. Bakoitzak bere joerak ditu eta Maiatza Dantzanen, dauden joera desberdinak ikusteko aukera izango dugu.

Azkoitiko Baztartxo antzokian, maiatzaren 8an gaueko 10etan, L'Anonima Imperial, eta 16an Vianants taldea izango da. Irungo Amaia Kultur aretoan, bestalde, maiatzaren 9an arratsaldeko 8etan izango da L'Anonima Imperial taldea, eta 15ean Vianants taldeak parte hartuko du.

Euskal Herrian betidanik izan den dantzarekiko afizioak ere izan du, bestalde, dantza garaikidean hasteko eragina. Jende asko, tradizionaletik hasi eta beste dantza batzuk praktikatzen hasi da, baina zoritxarrez kanpora atera behar izan du, profesionalki horretara dedikatu nahi bazuen. Honekin lotuta ere esan behar da, parte hartuko duten bost konpainietatik hirutan euskal dantzariak datozela; hain zuzen, Urtzi Aranburu Nederlands Dans Theatre-2 taldearekin datorrena, Sandi Gorostidi Ballet du Grand Théatre de Genève taldean eta Idoia Lekunberri L'A- nonima Imperialen, Juan Carlos García bilbotarraren zuzendaritzapean.

Dantza klasikoak oso arau zuzen eta zorrotzak

«Maiatza Dantzan ihardunaldiak, dantza garaikideko zirkuitu egonkor bat osatzeko bidean aurrerapauso bat gehiago da» ●

LIDE ARANA

Aurreko edizioei erreparatuz, zaletasuna gazte jendearen artean ematen da gehien bat. (Argazkia: Marc Vac Appelghem)



Dantza klasikoak oso arau zorrotzak dituen arren, garaikidea askoz irekiagoa da. (Argazkia: Marc Vac Appelghem)

dituen arren, dantza garaikidea askoz ere irekiagoa dela esan behar da. Estilo mota desberdin asko biltzen ditu, eta bakoitzak bere dantzatzeko modua dauka. Lide Aranak zehazten digunez, *«batzuk besteak baino dantzatuagoak dira, energikoagoak, gimnastagoak, eta besteak antzeztuagoak dira, antzerkiarekin lotuago daude, eta barrura gehiago begiratzen dute»*. Jaialdi hauetan zehar ere, modu eta estilo desberdinak bilduko dira, eta dantzarekin batera gorputz espresioa lantzen dutenak ere ikusi ahal izango dira, ballet klasiko mugatu horri kontrajarriz.

Aurtengo edizioa, Gipuzkoako beste herrietako antzokietara ere zabaldu da

Bestalde, 23 milioi pezetako (1,2 milioi libera inguru) aurrekontua duten Maiatza Dantzanen IX ihardunaldi hauek, Aranaren hitzetan, *«gaur egun duten ekarpen nagusia, dantza garaikidea ezagutarazteaz gain, zirkuitu egonkorra osatzeko bidean aurrerapauso bat gehiago izatea da, dantza emanaldiak normaltzeko helburuz, eta era berean, jendea zaletzen joatea; aurrerantzean antzoki gehiagotan izango dira emanaldiak eta ikuslegoa ere urtero mantentzea edota gehiagotzea dira ihardunaldi hauen helburua»*.

Patxi Sarriegi

Egile eta irudi eskubideak: sormen munduko langileen babesa

Kreatzen duten langileen eskubideak kudeatzeko sortu zen Jabego Intelektualaren legea. Lege honen bidez zaintzen dira egile zein irudi eskubideak. Musikan, autore eskubideak gestionatzeko elkarte bat baldin badago aspalditik, argazkilariek, aktoreek eta dantzariek beren elkarteak sortu dituzte euren gutxieneko eskubideak babesteko.

HEGO Euskal Herriko antzerki nahiz zinema aktoreak eta ikus entzuteko komunikabideetan lan egiten duten dantzariak, AIGSE elkarteak ordezkatzen ditu. Orain dela bi urte sortu zen AIGSE, Espainiako Interpreteen Gestio Elkartea, ikus entzuteko langileen irudi eskubideak kudeatzeko.

AIGSE, orain dela gutxi, AIE (Espainiako Interpreteen Elkartea) musikarien elkartearekin hasi da lanean. Patxi Barco, AIGSE eta Euskal Aktoreen Batasunako batzordeko kideak esan digunez: *«Elkartean informazio nahiz kontzientziazio lan handia egin behar dugu hurrengo urteetan, ekoizpen etxeak eta bere irudia dohainik ematen duen jendearen artean. Jaiotzen ari den zerbait besterik ez da oraingoz. Emaitzak hemendik urtebetera ikusiko dira».*

Asmoa, irudi eskubideak autore eskubideekin parekatzea da. *«Orain arte, kontratuen klausulek adierazten zutenez, aktoreek gure eskubide guztiei uko egiten genien. Baina ikus entzuteko produktuak, industria izateaz gain, artelanak dira; beti ere, kreatzea delako. Arazoa da obra sortu, komertzialdu eta etekinak ez direla lanbidera itzultzen».* AISGEren estatutuen arabera, lan batean, portzentaia bat dago ekoizlearentzat, beste bat aktoreentzat, eta beste bat lanbidean bertan inbertitzeko: espezializazio ikastaroetan, aseguruetan eta lanbide berriak sortzen.

Zinemagintzan, banatze etxeak eta kanpoko kon-

Dani Heres eta Patxi Barco, Euskal Aktoreen Batasunako batzordeko kideek esaten digutenez, aktoreek orain arte bere eskubide guztiei uko egiten zieten.



Antonio Alonso, Gipuzkoako Informatzaile Grafikoen Elkarteko lehendakariaren ustez, egile eskubideak ez dira errespetatzen, «ezta lan egiten duzun komunikabidean bertan ere».

petentzia dela medio, Estatu Batuetakoa batez ere, bertako zinema industria babesik gabe geratzen da. Hala ere, arazo latzena bideoarena da. AISGE, hain zuzen, horregatik sortu zen gehien bat. Gaur egun, edonork graba dezake telebistaz emititzen den edozein programa baina aktoreek emankizun bakar batez kobratzen dute beren lana. Urtero, Estatu espainiarrean 800 mila magnetoskopio saltzen dira. *«Guzti honen bidez pirateatzen da gure lana. Zu ez zara zinemara joango nere filmea ikustera norbaitek grabaturiko bideoan ikusi baduzu. Etxe batean ezer ordaindu gabe hamar pertsonak ikus dezakete filme bat. Pirateaketa legezkoa da eta hortik ateratzen den dirua bideo eta magnetoskopioen fabrikatzaile enpresek irabazten dute. Hau da, Sony eta beste multinazionalak».* Gutxi gora behera, jendeak grabatzen duen % 80 filmeak dira, % 15 serieak eta beste % 5 musika.

«Obra sortu eta saldu egiten da, baina etekinak ez dira lanbidera itzultzen» ●

PATXI BARCO

Etekin berriak

Elkarteak, oraingoz, aparailu eta bideoz grabatzen den ordu bakoitzeko tasa bat jartzea lortu du. *«Aktore batek filme batean lan egiten badu, filmean lan egiteagatik bakarrik kobratzen ditu irudi eskubideak, baina ez bideo gisa saltzen bada; eta bide berri honen bidez ere sortzen dira etekinak»*, aipatzen digu Aktoreen Batasunako batzordekoa eta AISGEko kidea ere den Dani Heres-ek.

Kanpoan baziren lehendik irudi eskubideak gestionatzeko sortutako elkarteak. Horrelako elkarteak ez dauden herriak paradisuak dira multinazionalentzat. AISGE, une honetan, Estatu espainiarreko ia 900 aktorek osatzen dute. Beren helburua, epe laburrean eta neurri batean, diru laguntzen menpe ez egotea eta askatasun handiago izatea da sortze eta lan egiteko garaian.

AISGEk, Espainiako Autoreen Elkarte Nagusiak (SGAE) musikan lan egiten duen antzera iharduten du. *«Guzti honen ardatza Jabego Intelektualaren Legea da. Lege honek pertsona kreatzaile guztien eskubideak zaintzen ditu. Ekoizpen etxe bakoitzak bere kasa kontratatzen bait ditu langileak».*

Bertsolaritzan ere, egile eskubideak izatea beharrezkotzat ikusten dute. «Ez



Bertsolaritzan egile eskubideak izatea beharrezkotzat ikusten du Koldo Tapia Euskal Herriko Bertsolari Elkarteko idazkariak, nahiz eta elkartean oraindik ez jakin arazoa nola planteatu. (Argazkia: Juan Carlos)

dakigu oraingoz arazo hau nola planteatu, ezta ere egile eskubideen egitura bera zer den. Gauza asko daude, saioa antolatzen duenak zein eskubiderekin egiten duen. —komentatzen digu Koldo Tapia Euskal Herriko Bertsolari Elkarteko idazkariak—. *Gaia aztertuko dugu baina momentu honetan ez daukagu eskuartean. Hasteko asmotan gaude».*

Argazkilariek berriz, Prentsako Informatzaile Grafikoen Elkarte Nazionala daukate beren eskubideak zaintzeko. Duela gutxi, ordezkaritzak probintzietan sortu ondoren, une honetan, elkarte autonomoa osatu nahi dute Hego Euskal Herrian. Antonio Alonso da Gipuzkoako Informatzaile Grafikoen Elkarteko lehendakaria: *«abokatu talde bat dago elkartean lan egiten, Jabego Intelektualaren Legearen arabera, gure eskubideak babesteko. Lege honen alde gehien borrokatu zutenak argazkilariak izan ginen, eta orain, legeaz gainerako arloak baliatu dira».*

Argazkilaritzan, Alonsok komentatzen digunez, ez dira egile eskubideak errespetatzen, *«ezta lan egiten duzun komunikabidean bertan ere. Nik Efe agentzian lan egiten dut eta nere argazkiak Efe-Antonio Alonso izenaz sinatzen ditut, baina argazkien % 2k bakarrik daramate nere izena. Normalean, argazki oinean, Efe bakarrik ikus bait daiteke. Efe da nik lan egiten dudan enpresa, baina autorea ni naiz. Ez dute errespetatzen».* Kanpoko agentzietan berriz, beti agertzen da, enpresaz gain, argazkilariaren izena.

Joxi Goikoetxea

Andoni Egaña bertsolaria:

«Oso ustekabekoa da bertso baten arrakasta eta errepikapena»

ARGIA. *Zuk eta Anjel Mari Peñagarikanok botatako bertso batzuez sortu zuen Negu Gorriak taldeak «Bertso-hop» kanta. Jaso al duzue dirurik autore eskubideak direla medio?*

ANDONI EGAÑA. Nik ez, baina Peñak uste dut baietz. Hala ere nik ez dut jaso alferkeriaz, paperak autore eskubideetara bidali ez nituelako. Fermin Muguruzak berak esan zigun nola egin zitekeen eta alde horretatik oso ondo portatu zen. Berak esan zigun paper batzuk autoreetara bidaltzen bagenituen hortik diru bat etorriko zitzaigula.

A. *Ez duzu ikusten, musikan bezala, bertsolaritzan ere egile eskubideak errespetatu behar direla?*

A.A. Oso ustekabekoa da bertso baten arrakasta eta errepikapena. Normalean, bertsoen % 99,99 behin bakarrik botatzen ditugu eta bertso gutxi entzungo ditugu irratiz izaten diren hurrengo asteko laburpenetan. Gainerakoak ez dira berriz ere entzuten. Bat edo beste izan daiteke arrakastatsua talderen batek jotzen duelako... baina ez dakit, ez naiz inoiz horretan pentsatzen jarri. Badakit Bertsolari Elkartea badabilela gai horren atzetik eta abokatu bat hasi dela lanean. Azken batean, elkarteak zerikusia izaten du txapelketako bertsoak eta zintak argitaratzerakoan.

Anje Duhalderen «Bakezaleak» lan berria kalean da jada

«Nazka eginda nago inguruan hainbeste 'bakezale' ikusita»

Anje Duhaldek, bere azken lanean, gai eta arazo askotaz hitz egiten digu. Horien artean, hala ere, Euskal Herriko egoerak leku berezia du. Horren lekuko, Jon Tapia Irujo euskal presoak idatziriko bertso sorta dago, kantariaren musikaz apaindua ageri dena. Hemengo kontuekin batera, dena den, Tom Waits eta George Brassens kantarien bertsioak azaltzen dira.



Anje Duhalderen azken lanean hamabi kanta biltzen dira.

ARGIA. *Zure azken diskoak «Bakezaleak» izena du. Zer adierazi nahi izan duzu izenburu horrekin?*

ANJE DUHALDE. Nazka eginda nagoelako inguruan hainbeste 'bakezale' ikusita, 'bakezaleak' omen ditugunak eta gainera demokratikoki horrela deitzen direnak. Sinesterazi nahi digute haiek direla benetako bakezaleak, eta horien kontra daudenak terroristak eta beste direla. Kanta hau egiterakoan, egia esan, ni Errobin ari nintzeneko garaiko giroaz gogoratu naiz, orain hamasei edo hamazazpi bat urte. Ordutik hona gauzak ez direla gehiegi aldatu esango nuke, edota okerrera joan direla. Orduan faxistak zirenek, eta gaur aurpegi demokratikoa dutenek, pakearen irudia darabilte, eta besteoi ukatu egiten digute. Guzti hori salatzeko egin dut.

A. *«Bakezaleak» kanta bi aldiz agertzen da diskoan. Nolatan pieza beraren bi bertsio?*

A.D. Bata akustiko samarra egin dut, eta bestea nahiko gogorra. Ideia hori Neil Young kantari amerikarrarengandik hartu dut, berak disko batean gauza beretsua egin bait zuen. Bestalde, «Bakezaleak» diskoko kantarik deigarriena izatea nahi nuen, eta horregatik jarri dut lanaren hasiera eta bukaeran.

A. *Disko honetako hitzetatik hiru, Xabier Amurizak eginak dira. Nolakoa izan da zuretzat berarekin izandako esperientzia?*

A.D. Neretzat beste modu batez inplikatzea suposatu du, zeren nahiz eta bertsoak betidanik gustatu, beste mundu batean sartzea izan



«Xabier Amurizari esker, bertsolaritza munduan sartu naiz piska bat».

bait da. Ni entzun izan nauen publikoak ez du zerikusi handirik bertsozalegoarekin, eta bapateko saltoa ematea, beraz, ez zen erraza. Xabier Amurizari esker mundu horretan sartu naiz, eta esperientzia izugarri aberasgarria izan da.

A. *Diskoan Tom Waits kantariaren «Jersey girl» piezaren itzulpen bat ageri da. Zer dela eta?*

A.D. Tom Waits oso kantari polemikoa da, kanta ederrak eta hunkigarriak egiten dituena. Nik kreatibitate handia ikusten diot, sentimentu piloa. Neri, betidanik, bere lehen diskoko kanta den «Jersey girl» asko gustatu izan zait, baina ingelesez asko ulertzen ez dudanez, kantu horren esanahia nere modura imaginatzen nuen. Lagun bati itzulpena eskatuta, hitzak oso bestelakoak zirela ikusi nuen: amodiozko istorio sinple, samur eta arrunt bat bait zen. Hain hitz sinplea duen abestia sartuta, guk mitifikatzen ditugun jende horiek gu bezalakotsuak direla frogatu nahi nuen.

A. *Disko honetan, George Brassens kantariaren hiru bertsio egin dituzu...*

A.D. Aspaldiko istorioa da hori. Oso kantari interesgarria iruditu zait beti, oso kritikoa. Bere idazteko era asko atsegin dut, eta hemen sortua balitz, Txirrita batekin konparatuko nuke. Zertarako saiatu beste batek hain ondo egin duena egiten? Horregatik hasi nintzen kanta horiek itzultzen.

«George Brassens hemen sortua balitz, Txirrita batekin konparatuko nuke» ●

A. *Disko honetan, zurekin aritzen diren ohizko musikariez gain, Mikel Irazoki, Kaki Arkarazo eta Fermin Muguruzak hartu dute parte. Zer moduz moldatu zara beraiekin?*

A.D. Oso ondo. Mikel Irazokik, esaterako, odol berri asko ekarri du. Bestalde, Kaki Arkarazoren lana oso garrantzitsua izan da, diskoa grabatzeko teknikaria izateaz gain gitarra elektriko guztiak berak jo bait ditu. Nik, diskoa grabatzera sartu nintzenean, gitarrajole bat behar nuen, eta Kaki nerabilen buruan. Egia esan ez nuen pentsatzen hain ondo egokituko zenik musika estilo honetara, denok bait dakigu zein musika egiten duen M-ak eta Negu Gorriak taldeekin. Baina oso ideia zabal eta irekikoa dela erakutsi dit. Bestalde, «Bakezaleak» kantaren bertsio gogorrean, Fermin Muguruzak abesten du, eta indar handia ematen dio berak ere.

Alberto Irazu

Argazkigintza eta mugimendua

Zinema asmatu baino lehenago mugimendua irudi finkotan jasotzen saiatu zen argazkilari bat baino gehiago. Mende bat iragan ondoren, mugimendua harrapatzeko grinak indarrean segitzen du, horren lekuko bi erakusketa eta liburu bat.



Muybridge-ren zaldi-arrapalada eta Pam-en Mercedesa, bi garai desberdinetako mugimenduak.

ZINEMA eta argazkigintzaren arteko lotura nabarmena bada, are nabarmenagoa da Eadweard Muybridge-ren kasuan. Ez da, beraz, harritzekoa Londreseko «Museum of Moving Image»k (zinemaren museoa) aitzindari horri erakusketa eskaintzea, zinemagintzaren mendeurrenaren bezperetan. Eadweard Muybridge —jaiotzez Edward James Muggeridge— Britainia Handian jaio zen 1930ean eta Amerikatara jo zuen oso gazterik. Istripu baten ondoren bizimodu sanoa, aire zabalean, egiteko gomendioa eman zioten medikuek eta orduntxe bilakatu zen argazkilari.

Berak utzitako testigantzen artean, 1906ko lurrikaren aurreko San Francisco hiriaren irudiak, Estatu Batuetako armadari men egin nahi ez zioten modok indioak eta Pacific Railroad trenbidearen eraikuntza daude, besteak beste. Baina aparteko ospe eta itzala eman ziona, mugimendua iruditan finkatzeko ikerketa lanak izan ziren.

Mende hasierako teknikez baliaturik zaldien korrika iruditan deskonposatzea lortu zuen, arte eta zientzia alorretan benetako iraultza sortuz. Occident izeneko zaldiari egindako argazki horiei esker, adibidez, korrikaren une batean lau hankak airean zituela jakin ahal izan zuten.

Mugimenduaren islatze nahi hori antzeman daiteke, era berean, Max Pam argazkilari australiarrarengan. Honen lanaren hasierak Melbourneko fisika fakultatean gertatu ziren, kristalak zeharkatzen zituzten laserren argazkiak ateratzen zituenean. Estudio lanak, hala ere, laster utzi zituen Pamek. Hemeretzi urte zituen, hippyen garaia zen eta ez zuen Indiara joateko aukera pasatzen utzi.

New Delhira ailegaturik, Sawai Jai Singh marajak hiru mende lehenago eraiki zuen behatoki astronomikoa izan zen bere lehen xedea. Orduak ematen zituen australiarrak unibertsoaren mugimendu eta etenaldiak hartzeko une egokiaren zain.

Muybridgek mugimendua deskonposatu nahi zuen bezalaxe, Max Pam-ek mugimendua eman nahi die bere argazkiei eta horretarako irudiaren lausotzea erabiltzen du. Australiarraren ustez, *«lausotzeak, bestela somatuko ez litzatekeen efektoa komunikatzen du: haizeak arboletan sortzen duen ikara, pertsonaia baten bizitasun dardartia»*.



Irudi horiek bildu egin ditu Marval argitaletxe frantziarrak «Going East» liburuan Tim Winton eta Max





Pamen testuekin batera, bitartean orijinalak ikusi ahal izango dira Pariseko Montparnasse-ko Fnac liburudendan eta Toulouseko Galeri du Château d'eaun.

J.M. Heritz

Taiwan-eko memoria hurbila berreskuratzen

Hirurogeietako hamarkadan, Edward Yang gaztetxoa zen, lizeoan zebilen banden arteko burruka batean ikaskide bat hil zutenean, eta benetako gertaera horretaz baliaturik garai horietako fresko erakargarria sortu du gazte jendearen arteko istorioa kontatuz. «A Brighter Summer Day» Yangen laugarren luzemetraia da eta, aurrekoak burutzeko izan zituen arazoak gainditzeko asmoz, oraingo honetan gidoigile, zuzendari eta ekoizle lanak ere bere gain hartu ditu. Filmean gazteen arteko biolentzia, rock zaletasuna, maitasuna eta traizioa agertzen dira, beti ere bertsio ofizialek ezabatu duten memoria kolektiboa berreskuratuz.

Kirkeby naturatik harantzago

Kopenhagen jaio eta egun Danimarka eta Frankfort artean bizi den Per Kirkeby artista ez da oso ezaguna Europako hegoaldean. Pintura, eskultura, grabaketa eta beste hainbat arlotan aritu da Kirkeby azken berrogei urteotan eta bere lanari eskaini dio Grenobleko Arte Garaikideko Zentro Nazionalak maiatzaren 10era bitartean zabalik egongo den erakusketa. Aukeratutako lanak ez dira kronologikoki aurkezten baina, egileak berak dioenez, «zahartzearen historia» kontatu nahi da nolabait. Erabiltzen dituen kolore eta formek natura gogorarazten dutela maiz esan den arren Kirkebyk ez du horrelako parekotasunik onartzen, bere begirada gordinagoa, ilunagoa, «arriskutsuagoa» dela adieraziz.

TEILAK



GURE IRRATIAREN 10. URTEMUGA

BAIONAKO Gure Irratiak bi kantaldi antolatu zituen bere hamargarren urtemuga ospatzeko. Lehenengoa apirilaren 25ean Ezpeletan izan zen eta Anje Duhaldek eta Minxoriak taldeak jo zuten. Bigarrena, maiatzaren lehenean Urruñako elizan burutu zen eta Ipar Euskal Herriko kantari garrantzitsuenek, besteak beste, Niko Etxart, Jojo eta Ramuntxo eta Maite Idirinek, Frantziako irailtzan euskaraz egindako kantu batzuk kantatu zituzten.

MAURIZIO ELIZALDE HIL DA

APIRILAREN 18an hil zen Maurizio Elizalde 77 urte zituela. Elizalde, Txistulari handia izatez gain, ikertzaile eta biltzaile garrantzitsu bilakatu zen eta 1991ko irailaren 22an, Euskal Herriko Txistularien Elkarteak Urrezko Dominaz saritu zuen.

UDAL EUSKALDUNEK EZ DUTE GAZTELERA BAZTERTZEN

EAE-KO Justizia Auzitegi Nagusiak, Beasaingo Udalaren mozioa ontzat hartu du. Plazaratutako epaiaren arabera, euskaraz bizitzeko zenbait udalek harturiko erabakiak ez du esan nahi gaztelera baztertzen denik.

LIBURUAREN EGUNA AURTEN ERE

IRAGAN asteko ostegunean Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan Liburuaren Eguna izan zen. Egun horretan, liburuak urteko beste egunetan baino merkeago saldu eta Donostian nahiz Bilbon ohizko azokak zabaldu ziren. Gasteizen, maiatzaren 16 eta 17an izango da azoka eta Iruñean, berriz, ekainean. Bestalde, apirilaren 20an burutu zen Saran Idazleen IX Biltzarra.

ERRANAK ERRAN

«Nik salto egin nahi dut eta abestia gehixeago urratu. Horrela, abestia ohizko terrenoetatik kanpo geratzen da. Jendeak galdetu dit ea zer musika mota den diskoko hori, eta hain zuzen horixe nahi dut nik, jendea desmarkatuta uztea».

Iñaki Salvador, musikaria. El Diario Vasco, 92-IV-22.

«Jaialdia aurten xumeagoa izango da baina irudimena erabiliko dugu».

Koldo Anasagasti, Donostiako Zinemaldiko Zuzendari Erabakitzailea Deia, 92-IV-24

«Esan nahi dudana askoz hobeto azaltzen dut irudi baten bidez. Biluzik geratzen zara piezen aurrean. Azken finean, erditzea bezala da».

Dora Salazar, eskultorea. Egunkaria, 92-IV-23.

«Idazleak gaur egun, orobat, gutxi edo ez du ezer arriskatzen; boterea kritikatzen du, egiten duenean, errespetu eta kontu handiz».

Pedro de Miguel, literatur kritikoa. El Diario Vasco, 92-IV-21.



TXUTXU-MUTXUKA



«Literatur kritikak ez du jolas soila izan behar. Literatur tradizio ezberdinen ezagutza eta horien inguruko gogoeta eskatzen du kritika baliagarri batek. Kontua da ea nor den gai horrelako lanak egiteko. Egia da hori ez dela egiten, baina hutsunea ez da kritika lanak egiten dugunona soil-soilik. Arazoa, hutsunea, orokorragoa da, gure literaturako idazleak eta intelektualak ere ez direlako, orobat, horretarako gauza».

Iñaki Aldekoa, idazlea. Egunkaria, 92-IV-22.

«Gu aurkitzea ere ez duk kasualitatea, duk biok geure lana maitasunez egiten dugulako eta bakoitzak bere bizkuntza lantzen duelako. Hik bitzekin egiten duk lan, nik egurraren bizkuntza lantzen diat nere esku hauekin».

Juan Gorriti, pintorea. El Diario Vasco, 92-IV-22.

«Historiaurreko gizakia artistikoki pentsatzeko bezain modernoa zen»

Isabel Monge, pintorea Egunkaria, 92-iV-24

IAZKO MUNDUKO TXAPELDUNA TOLOSAKO MAGIA JAIALDIAN

MAIATZAREN 27tik 30era bitarte izango da aurtengo Tolosako Magia Jaialdia. Aurten, 1991n Munduko Txapelketa irabazi zuen Alex magoak parte hartuko du eta, Estatu espainiarreko artistez gain, jaialdian Europako beste herri batzuetako magoak ere arituko dira. Aurtengo egitarauko berritasun nagusia Afari Magikoa izango da, magia eta umorea protagonistak izango diren afaria.

NOR-NORI-NORK

ELIAS KEREJETA

omenduko dute Canneseko aurtengo Zinemaldian. Maiatzaren 7an hasiko den Canneseko jaialdiak, zinema produktore donostiarraren iharduera profesionala saritu nahi du; Elias Kerejetak ekoiztutako 11 filmek zinemaldian parte hartu eta hauetako bostek sariren bat jaso bait dute ●

J. GABILONDORI

eman diote euskarazko sailean, Ignacio Aldekoa Ipuin Lehiaketako lehenengo saria. Californian bizi den idazle honek, «Madril, New York, Tokio» lanari esker irabazi du saria. Lehiaketaren XXI edizioa izan da aurtengoa, eta bertan, 154 ipuinek parte hartu dute, hauetako 31 euskaraz idatziak ●



AINGERU EPALZAK

udazkenean argitaratuko duen nobelaren zati bat, «Burua burukoaren azpitik», agertzen da «Mazantini» aldizkariaren bigarren zenbakian. Bertan, Eduardo Gil Berak Eñaut Etxamendiri egindako elkar hizketa eta Julen Madariagak idatzitako «Aldjeria» izenburuko artikulua agertzen dira ere ●

Bardeetako mendian edertasun hotza

EUSKAL Herriko hegoaldeko mugan dagoen lurralde berezia osatzen dute Bardeek. Biztanlerik gabeko lurralde hau oso berezia da Euskal Herriko beste mendi eta basoekin alderatuz gero. Bertan ez ditugu Euskal Herrian ohizkoak diren lurralde berde zabalak aurkituko. Bardeetan pinu bakan batzuk eta zuhaiska ezberdinek ematen diote lurrari berdetasun apur bat.

Bardeek, duela urte batzuk, zeresan handia eman zuten, bertan eraiki zuten tiro poligonoa zela eta, inguruko herrietan eztabaida biztu bait zen. Baina Bardeek badute berez aipagarri egiten dituen gordintasun ederra. Bardeetan bi lurralde bereizten dira, Beltza eta Zuria eta bi hauen arteko ezberdintasuna landaretzan datza. Azken hau ikustatzeko mendiko bizikletaz abiatzea izan daiteke aukerarik egokiena, bertan hainbat bizikleta bide egin bait dira.

Bardeek mendiz osaturiko desertu baten itxura dute

Bardeetako mendi bakartiak alde batera utziz, aukera ederra izan daiteke inguruko Tutera, Kaparroso edo Argedas bezalako herrietan zehar bueltatxo bat emanez gero. Herri txikietako biztanleek harrera bikaina egiten diote bisitariari eta bertako ardo gorria dastatu beharrekoa izaten da. Herri txikietako giroa eta Bardeetako mendien bakartasuna elkartzen diren lurralde hau benetan ikusgarria gertatzen da.

Bizikletaz ikustekoa

- **Bardeek lurralde zabala hartzen dutenez oso egokia izan daiteke mendi bizikleta erabiltzeko. Kirol hau maite dutenentzat leku benetan aproposa da.**
- **Bardeek edertasun berezia gordetzen dute, lurralde hotza izan arren nolabaiteko lilura bait du.**



Benetan ikusgarriak dira Bardeetako mendiak

Bizikletaren hamabostaldia

APIRILAREN 27tik maiatzaren 8a bitartean Tolosan Bizikletaren Hamabostaldia burutuko da eta ekitaldi ezberdin ugari antolatu ditu Galtzaundi euskara taldeak.

Tolosako Kultur Etxean apirilaren 27tik 30era diapositiba proiekzioak izango dira arratsaldero 20.00etan. Kultur Etxean bertan egun hauetan merkatu txikia izango da, eta bertan bizikletak eta osagarriak erosi ahal izango dira.

Maiatzaren 1, 2 eta 3an bizikleta martxa bat izango da Araban zehar. Lehenengo egunean trenez Araiaraino abiatuko dira parte hartzaileak eta ondoren Araia-Legutio etapa jokatuko da. Maiatzaren 2an Legutio-Izarra eta azken egunean Izarra-Gasteiz.

Hamabostaldiari amaiera emanez bizikletaren mekanikari buruzko ikastaro bat eskainiko du Francis Navarrok San Esteban auzoko Ganadu Ferialekua.

Osasuna

Gastronomia

Gaitz ezezagun eta zabaldua

POLENARI alergia dion jende kopurua izugarri altua da, eta populazioaren % 10 inguruk jasaten du. Hala ere guztiz ezezaguna da gaitz hau, eta ideia oker ugari zabaldu dira gaisotasun honi buruz.

Alde batetik, gaitz hau ez da soilik udaberrian ematen, lore bakoitzaren polenizazio prozesuaren araberakoa da eta ingurugiroak eta klima aldaketek eragina izaten dute.

Alergia hau jasaten duten pertsonek beraien etxeetan ez dute lorerik izaten. Hala ere, normalean etxeetako loreek ez dute alergia sortzeko ahalmenik izaten.

Azkenik, aipatu beharrekoa da, pertsona bakoitzari polen mota batek sortzen diola gaitza eta beraz ez direla lore mota guztiak baztertu behar.



JOSE ANGEL ITURBEREN HELTZEA

Jupp Heynckesentzat



JOSE ANGEL ITURBE

Athletic taldea entrenatzaile aldaketarekin er- ronka berri baten aurrean dago. Oraingoan, lehenengo aldiz, alemaniar bat etorriko da entrenatzaile modura.

Futbolaren munduan zernolako maila duen erakitsi badu ere, oraingoan etapa berri baten aurrean dagoela uste dut. Bere lanaren poderioz eta gaur egun sasoirik onenean ez dagoen harrobitik hornitu beharrak ez dirudi gauza erraza. Hala ere, interesgarria deritzot.

Klub osoaren eta bereziki jokalarien laguntza beharko duela uste dut eta ez legoke batere txarto Begoñako Amak ere bultzadatxo bat emango balio.

Menuan euskal sukaldaritzan klasikoa den zerbait eskaintzen diogu.

Lehenik makailo entsalada epela tomate oliozpinarekin. Ondoren, legatz solomoak saltsa berdean muxilekin. Hirugarrenik txahal muturrak bizkaitar saltsaz. Azkenburuko gisa almendrazko tutulutxuak txokolate garratzezko saltsa beroaz. Edateko, Bakioko Gorrondonaren txakolina eta Contino ardo beltza.

JUPP HEYNCKES

Zientzia

Mikrouhinak, gero eta erabiliagoak

Une honetan, Erresuma Batuko familietan % 55ek mikrouhinezko labea du. EEBBetan % 80k, Frantzian %30ek eta Estatu espaniarrean %20k. Zenbaki hauek erabat aldatuko dira hurrengo hilabeteetan; izugarri hazten ari bait da mikrouhin labeen merkatua.



Hala ere, arriskuak badaude eta Europako Ekonomi Elkarteak hiru orrialdeko txosten batean mikrouhinezko irradiazioen arriskuak aipatu berri ditu, hots, antzutasun, gorputzeko tenperatur igoera, ikusmen-akats, zelulak pozoitu, erredura, elikadurak pozoitu, eta abarrerako arriskuak. Txosten horretan esaten denez, aipatu arrisku horiek ezereztatu egiten dira, beti ere gizakiak berak mikrouhinak jasotzen ez dituen bitartean. Izan ere, merkatal aparatuak oso seguruak dira eta ia istripurik ez dela izan aitor daiteke.

ELHUYAR

Bertsoak

Egun batez arrantzan

Doinua: Bautista Bazterretxe

Maiatzaren zazpian
joan dan urte hortan
arrantzara joan nintzan
erreka bazterrera
goizeko seietan
Emandako pausoak
neretzat kaltetan
Nola ibili nintzan
kontatutzera noa
bertso batzuetan

Hartuaz kañak eta
arrantza xextua
Eguneko puska ere
paperian bilduta
barrena sartua
garrapo haunditikan
beteta zatua
poltxikutan amuak
pita ta bolak eta
txitxare potua

Hasi nintzen arrantzan
jarrita bi kaña
berehalaxe bati
tiraka hasi zaio
amoarrai bikaina
indarra ere bazuan
urian nik aña
hark tira nik ere bai
pita erdi erditik
eten alajaña

Kaña muturra ere
ia ia hautsi
nere lokarri harek
amor eman zun arte
ez bait gendu etsi
isatsai eraginaz
etzan joan gaizki
ez nun pisatu baina
kilo bat ingurua
izango zan noski

Gero berriro kaña
tiraka etzana
pentsatu nuen berriz
etorri ote zen len
aldegin zuana
baina errez ekarri
nuan neregana
amorraitxo txiki bat
legezko neurritara
irixten etzana

Han jarri hemen jarri
tokiaz aldatu
irrixtatu ta erori
kañaren karretia
erditik puskatu
potoko txitxariak
gehienak bukatu
hala ere amorrairik
eginalak eginda
ezin harrapatu

Urte sasoi hartako
egualdi arrotza
euria egiten zuen
kazkabarra ere bai
ta gainera otza
aparejuak galdu
ta xextua hutsa
bizkarra busti eta
hantxe ibili nintzan
hauntza eta honuntza

Saiatuaren paltik
nik ez nuen behintzat
baina egun horretan
deabru danak ziran
tokatu niretzat
gero sasi tartetik
an ateratzen zat
«soy el guarda» esanaz
txapa erakutsiaz
kastilano txar bat

Eskatu zidanian
nere lizentziya
orduan konturatu
txartel hura nuela
etxian utziya
argatikan egin nai
zidan denuntziya
esan nion itxoin
laister ekarriko det
har pazientziya

Etxetik jira egin
nuen jota-kia
hasieratik etzan
nolanahikoa izan
haren atakia
eramango nindula
behar zan tokia
baina azkenerako
nolabait ere egin
genduan pakia

Berrogeitamar kilo
gehienez pixura
beiratu batez zuen
'tisico' sartutako
gizonan itxura
lotsagabe jarri zan
mutur zikin hura
ia bota nuen ba
galtza ipurditikan
hartuta putzura

Ilunabar aldera
banator etxera
afaririkan gabe
egurra emandako
txakurran antzera
horra egun hartako
nere ibilera
sardin zar bat brasetan
erreta ura janda
joan nintzen ohera

FLORIAN OIARBIDE

Maiatzaren 3an Elorrion **Bertsolari gazteen II eguna** burutuko da. Bertako Arriola kultur Aretoan Euskal Herri osoko bertsolari gazteak arituko dira. 14.00etan bazkaria izango da Elkartu izeneko elkartean eta bazkalostean bertso eskolen arteko saioa burutuko da festa giroan. Bertsolari gazteen egun hau Euskal Herriko Bertsolari Elkarteko bertsolari gazteek antolatu dute.

Maiatzaren 4ean **Bizkaia eta Arabako haur eta gazteen IX bertso txapelketari** hasiera emango zaio. Kanporaketak maiatzaren 4, 5, 6, 7, 8 eta 11n izango dira. Idatzizko bertsoen finala maiatzaren 15ean izango da eta bat batekoena, berriz, maiatzaren 23an.

Maiatzaren 9an Berriatuako Plazan 18.00etatik aurrera **Jon Lopategi, Jon Enbeita, Jokin Sorozabal, Olaso, Mañukorta, Unai Iturriaga** eta **Iñigo Gojenda** arituko dira.

Artea

«Izoztean», hamar eskultore kataluniarren erakusketa

MAIATZAREN 8ra arte, Donostiako Martutene auzoko Arteleku tailerrean, hamar eskultore kataluniarren lanak ikusi ahal izango dira. «Izoztean» izenburupean, hamar artista hauen obrak Ricardo Cataniak kataluniarraren ekimenez bildu dira. Aipatu eskultoreak honako hauek ditugu: Antonio Abad, Sergi Aguilar, Evaristo Belloti, Jordi Colomer, Pep Duran, Gabriel, Carlos Pazos, Perejaume, Joan Rom eta Manuel Saiz.

Artista kolektibo honetako partaideek, dena den, «Izoztean» izeneko erakusketa honetaz gain, euren lanak bakarka ere erakutsiko dituzte. Gainera, nork bere lanaren berri emateko, Artelekura etortzeko asmoa dute gehienek, eta horietatik hiru —Pep Duran, Gabriel eta Joan Rom—, egonak dira dagoeneko Donostiako arte tailerrean; honela, Jordi Colomer maiatzaren 5ean etorriko da, Antoni Abad hilaren 7an, Carlos Pazos hilaren 14ean, Evaristo Belloti hilaren 21ean, Manuel Saiz maiatzaren 28an eta Sergi Aguilar ekainaren 4ean. Eskultoreak, euren lanen berri emateko, filmiez baliatuko dira, eta azalpenak emateaz gain bertara hurbiltzen direnekin ere ihardungo dute.

Erakusketa, esan bezala, maiatzaren 8ra arte egongo da zabalik, eta berau bisitatzeko ordutegia Artelekuko ohizkoa izango da, goizeko zortzietatik ilunabarra atzerriko zenbait elkarterekin batera antolatua, irudi bitxi baino gehiago ikusi ahal izango dira bertan. Ordutegia: 18.00etatik 21.00etara.



Carlos Pazosen lan original hau ikus daiteke erakusketan.

● Baionan, Bonnat Erakustokiaren Laukian, **Jean Luc Miylainen** erakusketa dago zabalik. Ekainaren lehenerarte egongo da irekirik.

● Bilboko Arte Ederretako Museoan, maiatzaren 17a bitartean, **XIX mendeko pintura** espainiarreko obrak ikusi ahal izango dira, neoklasiko garaikoetatik artista modernoetaraino.

● Gipuzkoako Argazkilari Elkartean, hilaren 17a bitartean, **«Tribu Urbanoak»** izeneko argazki erakusketa interesgarria bisitatzeko aukera izango da. Donostiako Udaleko Gazteri Sailak

ZINKUNEGI
OPTIKA
HERNANI, 4
Telf. 42 06 24
20004 DONOSTIA

Antzerkia

Euskal Herriko talde ugari Zumarragan

Antzerki aste honetan bost euskal talde arituko dira.

URRETXU eta Zumarragako VII antzerki astea maiatzaren 4etik 10era bitartean burutuko da eta bertan bederatzi talde arituko dira. Hauetatik bost Euskal Herrikoak dira.

Zumarragan emanaldi guztiak Itzalon zineman izango dira eta Urretxun, berriz, Tom Caten.

Lehenengo emanaldia Supirata taldearen eskutik etorriko da. Maiatzaren 5ean Madrilgo Zascandil taldea arituko da Zumarragan .Egun berean Louviers talde gipuzkoarrak izen bereko lana eskainiko du Urretxun 23.00etan. Maiatzeran 6an Duodeno taldeak «Iruzurtien nazioarteko III kongresua» eskainiko du Zumarragan arratsaldeko 8.30etan. Hurrengo egunean Errenteriako Trapu Zaharrak «Oido Cocina!» taularatuko du. Egun berean Dar-Dar taldea Urretxun izango da 23.00etan.

Maiatzaren 8an «Armagedon» lana ikusteko aukera izango da Urretxuko Gernikako Arbola enparantzan 22.30etan Markeliñe taldearen eskutik. Marti-Atanasiu taldeak maiatzaren 9an Zumarragan. Antzerki asteari amaiera emanez, El Silbo Vulnerado y La Quimera de Plástico taldearen «Romanceros».

Zinema

Zinema egiten ikasteko aukera

URNIETAKO Eszenako Pedagogien elkarteak (APEU) Urnietako udala eta Donostiako Kultur Udal Pratonatuarekin akordio bat sinatu du eta ondorioz zinema eta bideo munduan lan egiten duen erakunde honek ikastaro ugari antolatzeko aukera izango du. Akordioak APEU elkartea Urnietako Lekaio kultur etxea eta Donostiako Intxaurrondo auzoan dagoen Larrotxene kultur etxearekin lotzen ditu. Ondorioz hainbat lan praktiko ere bideratu ahal izango dira. Aurtengorako ikastaro ugari antolatu dira, dagoeneko bat martxan dago eta Mitxel Gaztanbide eta Jose Antonio Vitoria gidoigileek zuzentzen dute. Hurrengo ikastaroko irakaslea Julio Medem izango da eta maiatzaren 4etik 15era bitartean luzatuko da. «Zinema egitea: Kimika eta miraria» izenburua duen ikastaro hau Lekaio kultur etxean izango da.



Beste ikastaro bat urrian izango da eta Paulino Viotak Jean Luc Godarden zinema hobe ezagutarazteko saioa egingo du. Mintegi hau Larrotxene kultur etxean burutuko da.

Azaroko asteburuetan, berriz, «Filme bat idazteko zenbait era» ikastaroa izango da Mitxel Gaztanbideren eskutik.

Ikastaroen baldintzak

- **Julio Medemen ikastaroan 25 lagunek har dezakete parte eta matrikula 25.000 pezetakoa izango da.**
- **Beste mintegietan 15.000 pezetako matrikula ordaindu beharko da.**

Dantza

Legazpiko Ezpata dantza Santa kruz jaietan

MAIATZAREN 3an, Legazpiko Santa Kruz jaien barnean, bertako dantzariek Legazpiko Ezpata dantza ezaguna eskainiko dute, urteetan zehar ohitura den bezala.

Ekitaldiei hasiera meza nagusiak emango die. Mezetarako sarrera prozesio modura egiten da dantzariak buru direla. Atzetik udal korporazioa eta herriko jendea dator.

Meza amaitu ondoren, udal korporazioa udaletxera bueltatzen da eta gainontzeko jendea enparantzan geratzen da dantza saioa hasi artean.

Hamabost izan ohi dira dantza saioa burutzen duten gizonezkoak, alkandora, galtza eta alpargata zuriak jantzita, eta zinta zuri bat bularrean. Hauen buruan hiru dantzari agertzen dira, dantzari txikiak, alegia, labana motzak dituztenak. Ezpata dantza egitera doazenean ezpataz osaturiko plataforma txiki bat egiten dute eta bertara buruzagia altxatzen dute. Bertan mantenduko da dantzak

Legazpiko Ezpata dantza benetan ikusgarria izaten da

irauten duen bitartean. Ondoren buruzagia jaitsiko da, eta aurreskuari ekingo diote. Modu honetan tradizio handikoa eta hain berezia dugun dantza saio honi amaiera ematen zaio.

Erakusketak



ERRENTERIAN burutuko da **XVI Euskal Herriko Eskulangintza Azoka** maiatzaren 1, 2 eta 3an Ereintza elkarteak antolatuta. Bertan 52 stand ikusi ahal izango dira eta 42 espezialitate ezberdinen adierazle izango dira. Aurtengoan lau espezialitate berri agertzen dira eta bisitariak artisauek nola lan egiten duten ikusteko aukera izango du. Azoka hau Niessen Kultur aretoan burutuko da 11.00etatik 14.00etara eta 17.00tatik 20.00etara.

Hontza
LIBURUDENDA

Okendo kalea, 4
Tel. 42 82 89 Faxa: 43 12 56
2004 DONOSTIA

Telebista-Irratia

BOTOIA SAKATU AURRETIK

Abentura istorio ahaztezina

Igandea 10
15.50etan, **«Altxorraren uhartea». Zuzendaria:** Andres White. **Antzezleak:** Orson Welles, Kin Burfield, Walter Slezak, Lionel Stander, Aldo Sambrell.

Literaturaren historian idatziriko ipuin eta kontakizunen artean, batzuk bereziak dira; belaunaldiz belaunaldi ahaztu ez diren istorioak izaten dira gehienetan, urteen joanaren kontra irauteko adinako xarma gorde dutenak. «Altxorraren uhartea», dudarik gabe, 'berezi' horietako bat da. R.L. Stevensonek idatziriko obran, izan ere, denboraren poderioz pixkanaka zahartu diren arren, gaur egun oraindik euren indarrez bereganatzen gaituzten pertsonaiak ageri dira, sekula hilgo ez direnak: Jim Hawkins, Long Silver... etxeko helduek eta gaztetxoenek gustora ikusiko duten filmea, Orson Welles handia zerrendaburu duena.

● Larunbata 9

22.05etan, Abentura zinea: **«Cordurara bidean».** Zuzendaria: Robert Rossen. Antzezleak: Gary Cooper, Rita Hayworth, Van Hefflin eta Tab Hunter.

Western zikloko filme honetan sei heroi militarren abenturak kontatzen dira. Militar amerikar hauek berriro ere beraien antzinako postuetara deituko dituzte eta bertan hainbat zailtasun gainditu beharko.

● Asteartea 5

22.10etan Zine gaua: **«Bi misiolari».** Zuzendaria: Franco Rossi. Antzezleak: Bud Spencer, Terence Hill eta Jean Pierre Aumont.

Italia eta Frantziaren arteko koprodukzio honetan oso arrunt eta zuzenak ez diren bi misiolarik bertako biztanleak babestu nahi dituzte. Lurralde horietako agintariak oso zorrotz jokatzen bait du bertako biztanleekin.

IKUSI BAIETZ

● Hilak 4, astelehena, 22.55etan, **«Eskualdeak».** Oraingo honetan Plentzia eta Mungia inguruak izango dira telebista leihotik ikusiko ditugunak.

● Hilaren 5ean, 14.50etan, **«Basabizitza ikusgai».** Dokumenal saio honek naturari buruzko gauzak kontatzen dizkigu, oraingo atalak, berriz «Arra eta umeduna batera» izena du.

● Maiatzaren 6n, 20.50etan, **futbola**. Europako Errekopako finala.

● Maiatzak 8, ostirala, 21.10etan, **«Hitzetik hortzera».** Bertsolaritza munduko berri eta gorabeherak.

● Hilaren 9an, 12.30etan, **«Atrila».** Musika klasikoa maite dutenetzako saio egokia.



TXORI BATEK ESAN DIGU

● Duela aste batzu ETBko «Herriko Plaza» saioan Pasai San Pedro eta Donibaneren arteko lehia ikusi ahal izan genuen. Baina saio honen grabaketa uste baino luzeagoa izan zen, ordu eta erdi grabatzen zeramatenean zuzendariak saioa eten bait zuen akats batzuk egon zirela esanez. Beranduago partehartzaileei adierazi zitzaien soinean zeramatzaten Senideak taldearen pegatinak kendu behar zituztela eta berriro hasieratik grabaketari ekin.

Manu Maritxalar: «Lotsagarria da telebistak boxeoa ez eskaintzea»

Kirol munduan oso ezaguna da Manu Maritxalar, boxeoan ez ezik rugbyan ere aritu zen eta gaur egun arraunketan murgildurik dago. Baina ETBko ikusleek ez dute horregatik ezagutzen, baizik eta Pedro Mari Goikoetxearekin batera «Boxeo Izarrak» saioan aritzen delako.



ARGIA. *Nolatan hasi zinen ETBko «Boxeo Izarrak» saioan laguntzen?*

M. MARITXALAR. Boxeatzen ari nintzela elkar hizketa batera joan nintzen eta han Pedro Mari Goikoetxearekin topo egin nuen elkar hizketa bukatuta eta berak hurrengo egunean Tysonen borrokaldian komentario batzuk egitea eskaini zidan. Borrokaldia oso interesgarria zen Mike Tysonek munduko txapeldun izateko aukera bait zuen eta onartu nuen.

A. *Zenbait telebistatan boxeoa ez da emititzen, zuk zein eritzi duzu honi buruz?*

M.M. Lotsagarria iruditzen zait telebistan boxeoa ez eskaintzea. Telebista publikoak guk ordaintzen ditugu eta argi dago ikusleari eskatzen duena eman behar zaiola. Telebista batekoek kirol bat bultzatu nahi ez dutelako ez emititzea diktadura bat iruditzen zait.

A. *Boxeoaren aurkakoak oso kirol bortitza dela esaten dute, zuk zer uste duzu?*

M.M. Edozein albistegi eta bestelakoetan askoz ere biolentzia handiagoa ikus daiteke. Bestetik, boxeatzera doazenek badakite zertara igotzen diren eta inork ez ditu behartzen. Ikusleak ere ez dira behartuak.

A. *Zu beti kirolaren munduarekin loturik egon zara, ez duzu telebistarekin inolako harremanik izan. Orain telebista barrutik ikusita zer iruditu zaizu?*

M.M. Egia esan nik telebistan azalpenak besterik ez ditut ematen, saioa Pedro Marik egiten du. Gustora burutzen dut lana, hitz errazekoa bait naiz. Telebista barrutik ikusita nahiko majoa da, konplexua. Kanpotik ikusita ez duzu uste hainbeste jende mugitu behar denik.

A. *Boxeolari izateaz gain, leben rugby jokalari izan zinen eta gaur egun arraun munduan ari zara. Kirol hauetatik zein duzu gustokoen?*

M.M. Nik uste bizitzako beste gauzak bezala bakoitzak bere momentua duela. 13 edo 14 urterekin rugbya zen gehien atsegin nuen kirola. Gero boxeoa ezagutzen hasi nintzen eta filmeetan erakusten duten bezelakoa ez zela konturatu nintzen eta azkenean 40 borrokaldi egin nituen.

AITZIBER YARZA

IKUSITAKOAK

IKUSITA

Udaberrian iraultzarik ez

ETB1ek udazkeneko programazioari pretentzio handiz eman zion hasiera. Iraultza zetorrela azpimarratzen zuten, programazioan aldaketa ugari eskainiz. Beti ere iraultzaren ostean bakea dator, eta udazkenerako badirudi lasaitasuna heldu zaigula berriro ere, iraultzarik ez, momentuz behintzat. Horrela bazkalondoetan udazkenak ekarri zuen aldaketetatik bat baino ez da mantentzen dagoeneko, eta tamalez gustorik txarrenetakoa dela esan behar, hau da Riviera telenobela. Udazkenean arratsaldeko etena ez egitearen apostua egin zuten, baina orain berriz ez dugu ordu eta erdiz gure telebistaz gozatzeko aukerarik izango. Zer egingo diogu!, beste kateetara ihes egin behar, horietan euskara entzuteko ahalbiderik ez egon arren.

Gauean eskaintzen zuten «Misterio Giltzak» zeritzon saioak ere, gutxi iraun du pantailan. Ez dakigu zergatik. Baina berria den telesaio batek epe luzea behar du ikusentzulegoaren arreta bereganatzeko. Saioa hasi eta berehala eten egiten bada, audientziaren erdiak saio hori hasi denik ere ez du jakingo.

JAIONE OGIZA

Liburuak

Oparíak altxor direnean

Botilako deabrua. **Egilea:** Robert Louis Stevenson. **Itzultzailea:** Maria Garikano. **Argitaratzen du:** Elkarrek. 69 orr.



EZ dakit Rafik Schamiren «Narradores de la noche» (Siruela) liburu ederra ezagutzen duzuen; ez dakit bere xarmak liluratu zaituzten ala ez; bakar-bakarrik dakit lagun batek liburu hori bera hogei bider oparitu duela bere ezagunen artean. Liburuak Sartaldeko oso pertsonaia erakargarri bat aipatzen digu: Hakavatia, hau da, kafetegietako ipuin kontalaria, narratzailea, gauza xumeenetaz ari delarik ere, entzulea (irakurlea) xarmelatu egingo duena.

Beste gauza bat ere badakit, R.L. Stevenson ezagutzen duzuela; baina ez dakit dakizuen ala ez idazle honi Samoan Tusitala deitzen ziotela, hau da, Hakavatiaren aldaera polinesiarra (gogoan izan Stevensonen mundualdia Samoan amaitu zela). Eta garbi daukadana da, lehen aipatu lagun hori bezala, ni ere berehala liburu bat edo bi oparitzen hasiko naizela: Stevensonen «Altxor uhartea» (Ibaizabal) eta «Botilako deabrua» (Elkar), biak Maria Garikanok itzuliak.

«Altxor Uhartea» nobelaren magiaz ezer gutxi esan dezaket, hala ere ezin bada aipatu gabe utzi itzulpena bera nahiko altxorra zaigula. Irakurleak aisa nabigatzen du liburuan zehar, nahiz eta, tarteka katalexua erabili behar izaten duen txikitasunagatik urrutikoa egiten zaion letra ulertu ahal izateko.

Botilako deabrua, berriz, ipuin laburra da, hasieran aipatu Hakavatien mundutik oso urrun egon ez (nor harrituko zen istorio hori Xerezaderen Mila gau eta bat gehiago liburuko ipuinen artean aurkituko balu?), eta ahogozatzeko aukera paregabea ematen duena. Bertan deabruarekin egindako tratu baten gorabeherak kontatzen zaizkigu, dela aberastasuna lortzeko dela amodioaren betea eskuratzeko. Eta tentsioa, noski, deabruaren sugarrek sortzen dutelarik. Ipuina, edozein egun goibel eguzkitsu bihur diezagukeen horietakoa da.

Beraz, Maria Garikanoren sarreretan esaten zaigunez, bere bizitzarekin literatura egin zuen Stevenson idazlearen bi altxor eder, handia bata ttikia bestea, nork bere buruari edota ingurukoei oparitzeko modukoak.

PATXI ZUBIZARRETA

Titulua: Hamalau. **Egilea:** Xabier Mendiguren. **Argitaratzen du:** Elkarrek. 134 orr.

Liburuaren izenburuak dioen bezala, hamalau di... lan honetan biltzen dir... ipuinak. Xabier Mendigure... beasaindarrak helduentz... eginiko bigarren narrazio... buru honetan, kontae... anitz eta teknika desber... nak ageri dira. Ipuin gehi... nak 1988-89 urteetan zeh... idatziak dira, eta nahiz e... maitasun kontuak dir... horietan nagusi, bestelak... kontakizunek ere bach... lekurik.

TXALAPARTA Argitaletxea

TXALAPARTA EDITORIAL

Gure Liburuak

78 Posta kutxa 31300 Tafalla
Tel.: (948) 703277 Faxa: (948) 755012

HARPIDEDUN TXARTELA

Gaztelaniaz 8 / 10 liburu urteko ❒
Euskaraz 4 liburu urteko ❒
Bietan 11 / 14 liburu urteko ❒

Izen-abizenak _____
Kalea _____ Zbakia. _____
Herria _____ Posta kodea _____
Probintzia _____ Tfno _____
Ordaintzeko mota ❒ Kontu korrentea ❒ Jasordainuz
Bankua edo kutxa _____ Sukurtsala _____
Kontu zenbakia _____ Herria _____

Honen bidez baimena ematen dut Txalaparta argiteletxeari ordain dakizkion, nire kontura, liburu kontzeptuarengatik igortzen dituen erreziboak.

Data _____ Sinadura

GURASOEN ETXEAN

ZILIN 97.

Denborapasa

Gurutzegrama



EZKER ESKUIN: 1.- Irmotasun. 2.- Bizkaieraz, itsusiak, Azken eta lehenengoa. 3.- Daukat. Zortzigarren hilabete. 4.- Egunoroko aldizkariak. 5.- Iratze. Atzizkia. 6.- Pancho Villaren euskal deitura. Bilo. 7.- Bromoaren sinbolo kimikoa. Bazegoen. Röntgen. 8.- Iparraldean, errotak. Ez eme. 9.- Lehen bokala. Atx!. Irain. 10.- Batzordea.

GOITIK BEHERA: 1.- Sinesten ez dutenak. 2.- Ikaragarri. Oxigenoaren sinbolo kimikoa. 3.- Izadia. Leku hartan. 4.- Modu atzizkia. Iparraldean, nonbait. 5.- Itxurazkoak. Suzko lama. Sufrearen sinbolo kimikoa. 6.- Zigarrozale. 7.- Alokairua. Gai. 8.- Kontsonantea. Txori kaka. Berrogeitabederatzi. 9.- Zazpigarren hilabetea. aoreb oratrU. 10.- Toka, naiz. Zaina.

Hitz kateatuak

Letra kopuru desberdineko hitzak ageri zaizkizu ondoan. Helburua zera da, eskuineko taula osatzea, puzzlea bailitzan. Pasa ezazu hitz bakoitza dagokion lekura, kontuan harturik hitzok ezker eskuin eta goitik behera joan daitezkeela.



8 letra
Agortuak
Bazterra
Hamabost
Tripazai

7 letra
Arazoak
Idaztia
Itomena
Mukurru

4 letra
Aipu
Anoa
Ardi
Arro
Asto
Atea
Data
Dira
Diru
Egin
Gara
Giza
Huts
Iaio
Ibai
Ibia
Idia
Latz
Lohi
Moko
Odon
Sake
zima
Zioa

3 letra
Art
Kea
Oro
Oso

2 letra
Ai
Ar
As
Do
Ea
Ih
Rr
Zz

—Hieroglifikoa—

ERANTZUN zenbakidunak bete ondoan, pasa ezazu letra bakoitza dagokion goiko taulako laukira eta grabatuan ageri den pertsonaiaren izena, dekeition jaio eta atentatuan hil zuten abertzale handi baten izena alegia, ageriko zaizu.

1	2	3	4	5		
6	7	8	9	10	11	12

Amildegi Erran baleza		Pixa Lurralde zelaia		Urteko aldizkariak Detekta-gailuak	9	Barazki mota
6						
Xake jokalari Zahulpena	Harrizko ibaia Ibai amaierak	Sutondoko gako Lorez apaindua				
2			3			
Koroaz hornituak Behi gaztea						Infusio mota
			Norat atzizkia Zero	Aita		
7						
Beharra Zuhaitz historikoa		Etxe luze Basa-pizti				
			8			
4			Herri giputza Jaun ingelesa			
Musika nota Musika tresna	Alde! 3,1415...		Erritmo mota (Zah.) Zakur	1		Kasik
12	10			Atzizkia Bat		
Neka	5	Hosto	11		Lehe-nengoa	



Gu gaizki ez, baina zuek oso ongi ...

Aurreko asteko soluzioak

Gurutzegrama

				J	U	A	N						
				A	J	U	R	I	A	G	E	R	R	A
				●	T	●	M	●	B	●			
				A	R	K	U	M	E	A			
●	J	●	M	●	U	R	R	A	T	S			
G	O	G	A	I	K	A	R	R	I	A			
●	K	E	Z	K	A	T	U	A	●	L			
J	A	R	E	●	T	E	A	●	I	D			
●	B	E	L	D	U	R	●	A	Z	A			
B	I	Z	A	R	●	R	O	B	O	T			
●	D	I	●	A	R	A	K	A	T	U			
P	E	A	N	●	A	K	I	●	Z	A			
●	A	K	O	R	T	●	N	I	A	K			

EZKER ESKUIN: 1.- Lehengaiak. 2.- Oren. Eltze. 3.- Radarra. Aa. 4.- Abarra. Il. 5.- Tada. Lehen. 6.- Eku. Berari. 7.- Giro. Koran. 8.- I. Aizu. T. I. 9.- At. Hiatua. 10.- Koruak. Are.

GOITIK BEHERA: 1.- Lorategiak. 2.- Erabaki. To. 3.- Hedadura. R. 4.- Enara. Oihu. 5.- N. Rr. B. Zia. 6.- Geralekua. 7.- Ala. Ero. T. 8.- It. Ihartua. 9.- Azalera. Ar. 10.- Kea. Nini. E.

Hieroglifikoa: Bigarren saioan

Hitz Kateatuak

▒	A	D	A	R	▒	A	L	E	A				
A	T	O	Z	▒	M	▒	E	S	N	E			
M	A	K	A	L	A	K	▒	K	A	R			
A	L	▒	L	E	P	A	Z	A	I	N			
K	▒	N	O	L	A	▒	A	E	▒	E			
▒	G	E	R	O	▒	Z	U	R	A	▒			
A	▒	S	E	▒	G	O	R	A	▒	D			
B	E	K	A	T	A	R	I	▒	D	A			
E	G	A	▒	I	Z	U	T	I	A	K			
L	O	T	I	▒	I	▒	U	Z	T	A			
▒	N	O	K	A	▒	L	A	U	A	▒			

KAXKU

EKB: ahaleginak bilduz etorkizuna lantzen

BEHIN baino gehiagotan esan du Txepetxek ez dela bere *«toeriaren asmatzaile sentitzen, teoria horren formulatzaile baizik, euskaldunen eta hainbat jenderen esperientzia eta nekeak hartu eta interpretatzen saiatu ondoren»*. («Bat-2», 86 orr.). Hau da, errealitatetik abiatuz teoria elaboratu eta honetan oinarrituz berriro errealitatera itzuli.

Duela 9 urte, EKB sortu zenean ez genuen oraindik ezagutzen «Un futuro para nuestro pasado» liburua. Hala ere, bagenuen esperientzia. Eta, intuizioz besterik ez bada ere, zera ikusten genuen garbi: derrigorrez, diferentziak baztertu eta minimo batzuen inguruan bildu beharra genuela; eta horrela ulertu zuten askok EKBren sorrera. Gerora, intuizioa baino ez zena, Txepetxek elaboratu eta eta zientufikoki formulatu egin du, aportazio izugarria eginez.

BAINA, indar bilketa suposatzen duen iniziatiba orok errezelu asko sortu ohi ditu betidanik. EKBren ahalegina ere ez da salbuspen bat izan eta urte guzti hauetan eraso bat baino gehiago jasan behar izan du. Batzuek EKB erasotu egin dute inoren konsignetara markatu gabe ahalegin autonomoa mantentzen saiatu izan delako; beste batzuk, berriz, bere fobia kronikoak gainditzeko gai ez direlako era izkin guztietan mamuak ikusten dituztelako.

Hala ere, eta bere helburu nagusia biltzea denez eta ez zatikatzea, EKBk ez du eztabaida dinamika antzu batean sartu nahi izan eta, horregatik, ez die eraso hauei jaramonik egin. Na-



J. IINAZIO MARKO JUANIKORENA
EKBko Idazkari Orokorra

hiago izan du adierazpen eta pratikaren arteko koherentzia mantenduz bere eginkizunari eutsi: elkarlana.

Euskal Herriko errealitate aldakorraren testuinguruan EKBk ospatu berri du bere III Biltzar Nazionala. Ideia garbi batekin: gure herrian ez dago inmobilismorako lekurik ez eta denborarik ere, euskarak gure doilerkeria eta muga pertsonalak gainditzea esijitzen digu.

Biltzar honen inguruan hausnarketa sakona eman da, baita ere aportazio aberats asko, hala nola herrietatik jaso den gogoeta gogotsua edota Xabier Kintanak egindako aportazioa EKBk euskararen fiskal lanak bete ditzan eskatuz. Eta guzti horren atzean ideia nagusi bat:

Bestelako kontsiderazioen gainetik euskal komunitatearen trinkotze bidean pausu berriak eman behar ditugu, ez pentsamolde ezberdinen uniformatzeko, baina bai euskararengan oinarritutako minimoen inguruko akordioa lortzeko. Akordioa pertsona, erakunde, sektore eta lurralde ezberdinen arteko elkarlan eta artikulazioan. Eta horretarako, funtzio hori beteko duen elkargune bat behar da. Herri eta sektoreen beharretatik abiatuz errealitate ezberdinen arteko artikulazio eta bilgunean izango dena. Instituzio eta indar sozialen arteko elkarlana bultzatuko duena. Eta funtzio hori betetzeko eskatu zaio EKBri, egungo errealitate berriaren ezaugarriak kontutan hartuz eta berauei egokitzeko egin beharreko egitura aldaketak eginez.

HAUXE dugu etorkizunerako erronak, iraganean oinarritutako etorkizuna; ezin bait da inoiz etorkizunerako bide garbirik azaldu aurretik egindakoaren ukazioan oinarrituz. Euskara aro berri batean ari da sartzen, eta gai izan behar dugu malgutasunez jokatzeko, herri honen euskalduntzearen erronkari eusteko.

Amaitzeko, aipa dezadan zita bat: *«haustura-tentsioa sortzeko gauza den hizkuntz-komunitate baten, eta bere diglosia glotofatikoa baztertu ezin duen beste baten arteko ezberdintasuna honetan datza, hots, bietatik lehena bakarrik dela gauza bere esku dituen giza-baliabide guztiak behar bezala erabiltzeko, bigarrenak, berriz, deskonektaturik eta sarritan elkarren arteko erasoan dauzkalarik bere hiztun osoak eta talde soziolinguistikoak, horrela estatu hedakorreko botere-elitearen interesen zerbitzura dagoelarik»*. («Jazten-1», 22. or.). Zahagi zaharra, hain zuzen ere, ardo berriarentzat; ardo zaharrarentzat, berriz, botila.

KULTURAREN ZERBITZURA
Maiatza Dantzan 1992



TXAKEL & ASOCIADOS

DANTZA GARAIKIDEKO IX. IHARDUNALDIAK

L´ANONIMA IMPERIAL. "Afanyat a poc a poc".
Azkoitia (Baztartxo) , maiatzak 8. Irun (Amaia) , maiatzak 9.

VIANANTS. "Solos".
Irun (Amaia) , maiatzak 15. Azkoitia (Baztartxo) , maiatzak 16.

ISMAEL IVO. "Delirium of a Childhood".
Donostia (Victoria Eugenia) , maiatzak 16 eta 17.

NEDERLANDS DANS THEATRE-2. "Who´s watching who", "Un ballo", "Blancs d´yvoir", "Port bou".
Donostia (Victoria Eugenia) , maiatzak 23 eta 24.

BALLET DU GRAND THEATRE DE GENEVE. "Kyr", "Rooster", "Axioma-7".
Donostia (Victoria Eugenia) , maiatzak 29 eta 30.

Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura eta Turismo Departamentua



EUSKARA IKUSGARRIA

400.000 pertsonak, zuk bezalaxe, egunero
Irratia eta Telebista euskaraz ikusi eta
entzuten dute.
Lasaitzeko, ondo pasatzeko,
informatzeko edo ikasteko. Euskara...
IKUSGARRIA delako.

ETB 1

EUSKADI IRRATIA